

uk

74. zenbakia / 2005 otsailak 6





GETXO ANTZOKIAN 19:00. 8E AURRETIKO SALMENTA, 10E LEIHATILAN : IGANDEA
KEPA JUNKERA+SYLVAIN LUC+MADDI OIHENART+LOKUA KANZA+KEYVAN CHEMIRANI 06

GETXO ANTZOKIAN 20:00 DOAKOA : OSTIRALA
LOGELA MULTIMEDIA 11

PORTU ZAHARREKO KARPAN 20:00 DOAKOA : LARUNBATA
SAGARROI+KEROBIA+KAUTA 12

GETXO ANTZOKIAN 19:00. 5E AURRETIKO SALMENTAN, 6E LEIHATILAN : IGANDEA
IMANOL IN MEMORIAN 13

SALMENTA: BBKren orotarako kutxazainetan

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Euskadi tropikala? Asier Mentsaka.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Xabier Payaren gogoeta.
7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako Eribera kalea.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
9. ERRETRATUA. Vicente Larrea.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Islamari buruzko erakusketa. Asier Mentsaka.
26. ERREPORTAJEA. Agate Deuna gurean. Unai Brea.
28. ARGAZKIA. *Portu* itsas ontzia. Aitor Galbarriartu.
30. BERBETAN. Margarita Uria. U. B.
34. FOTOGRAFIA. 1977, Algorta jaietan. Fede Merino.

KULTURA ETA AISIA

41. ELKARRIZKETA. Fede Merino.
42. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Zinegoak jaialdia.
43. MUSIKA. Kantuketan 05. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. 888 *Txiste*, Kike Anomarrizen liburu berria.
45. KIROLA. Erromoko eskubaloit taldearen 25. urteurrema.

EUSKARAZ

47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non hartu zeozer? Areetako *Arbol de te*.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako koadrila bat.
54. AITORMENAK. Loli Astoreka. Jon Urresti.


Azaleko argazkia: Aitor Galbarriartu (Arriluze)



30 Margarita Uria

Berbetan


Abokatua da eta Madrilgo Kongresuan EAJk daukan zazpi diputatuetakoa bat. Beragaz egon gara berbetan.



09 Vicente Larrea



12 Larraitx Urra



41 Fede Merino



34 Algortako jaiak, 1977



54 Loli Astoreka

“HAZIZ HAZI, HEZI”

IKASMAILAK (1-16 URTE)

- Haurtzaindegia
- HH, LH eta DBH
- Gela bereziak: Txikientzako logelak, psikomotrizitatea, liburutegia, Mundi Lab, laborategia, teknologia, musika, informatika-ADSL (ekipo guztiak internetara konektatuta).

ZERBITZUAK

- Haurtzaindegia laborala (2-5 urte): 7:30-19:00
- Jantokia
- Autobusa (Getxo, Berango, Urduliz, Leioa, Areta,...)
- Aniztasunari arreta berezia: psikologoa, auxiliarrak, terapeutika irakasleak, orientatzaileak,...
- Liburutegi gidatua
- Eskolazkanpokoak: ingelesa, pianoa, solfeoa, baleta, trikitixa, korala, kirolak,...
- Udako eskaintzak: haurtzaindegia, egonaldiak, ingelesa ikastaroak



www.sanikolas.com

Arene Azpi 15-48991 GETXO (Bizkaia)
Tel.: 94 4305478 - Faxa: 94 430 54 77- e-mail: snikolas@ikastola.net

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Amaia Ariaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Bittor Egurola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buenetxea, Berborts Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
© Boluntzarreta
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaideak da

 Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du Itxasgane Etxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta	 Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du
 Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du	 Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du
 Aldizkari honek Erandioko Udalen dirulaguntza jasotzen du	 Aldizkari honek Erandioko Berborts Euskaraz elkarrearen laguntza jasotzen du
 Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du	
 Fundación Grupo Eroski	 Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar

beharrezkoak

ditugu zuen

dirulaguntzak

BBK 2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Asmoak

Gure bizitza aldatzeko eta hobetzeko asmoa eta gogoia izaten dugu noizean behin pertsona gehienok: ohitura txarrak baztertu, hobeak gure egunerokotasunean txertatu... Ez dakigu zergatik baina badira urtean zehar norberak bere buruari zertan eta zelan hobeto behar duen gogorarazten dion data jakin batzuk (gero jakina, nekez aldatzen da bat eta gauzak bere horretan segitzen dute). Data hauek, norberaren urtebetetzea eta urte berria izaten dira jeneralean.

Urte berriari hain zuzen ere hasiera ematen diogu guk esku artean darabilzun UK honekin. Eta jakina, gure asmo onak ere zuenganatu nahi ditugu. Asmo on hauek betikoak dira, hau da, aldizkari hau hobetzea, irakurleak aldizkari honekin -apur bat bada ere- goza dezala... Hau guztia egiteko jakina, baliabideak behar ditugu. Horregatik urtero legez atzera gatoz laguntza eske. Modu argiagoan esanez, aurrera segitzeko zuen diru ekarpenak behar-beharrezkoak ditugu. Hori egiteko gure bulegora deitzea besterik ez duzue egin behar.

Bestetik, urtebetetzeak edo urteurrenak urtero gertatzen badira ere, aurtan aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearekin batera urtebetetze berezia ospatuko du, izan ere, hamar urte beteko ditugu. Bada zerbait. Data hau orain arte egindako jardunaren gainean gogoeta egiteko ere baliatu nahi genuke. Bestetik, urteurren hau -oraindik zehazki zelan ez badakigu ere- ederto ospatuko dugula aurreratu nahi dizuegu. Zuekin batera ospatu, esan nahi da.

Ah! Urteberri on! 4

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxe: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Goizero erosi > berria



GETXO, 2005-01-26

Euskadi tropikala? / Hertzainak rock talde gogoangarriaren kantu baten letra etorri zaigu gogora goiko erretratua ikusi dugunean: *eta Euskadi izango da libre eta tropikala...* dioen kantua. Palmondoak eduki badaukaguz, baina negubeteko giro ilun honek ez du bapere laguntzen. Beraz, oraingoz, Euskadi ez tropikala... ezta libre ere. / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Leihatila

> Maddi Albizu

Ez gara jainkoak

Dagoeneko 250 milatik gorako hildako (Getxo, Sopela, Plentzia, Leioa eta Erandioko biztanlego osoa baino gehiago!) eta ezin konta ahaleko zauritu daude Asiako hego-ekialdean abenduaren 26an izandako lurrikararen ondorioz. Onartu beharra daukagu ez dela lurra izan lurrikara honen astindua jaso duen bakarra, munduaz dugun pertzeptzioaren muinean bete-betea jo egin baitu. Hondamendi hau ez da bonba atomikoaren edo nazien garbiketa politikaren emaitza izan, fenomeno natural batena baizik. Horrexegatik zaigu horren ulergaitza. Teknologiaren aroan gizaki ahalguztidunaren kontzientziak erraz onar dezake bonba edo gerra baten ondorioz milaka lagun hiltzea. Horren atzean gizakiaren beraren borondatea dagoelako. Asian gertatutakoak, ordea, dena kontrolpean ez dagoela gogorarazten digu. Kolpe batez lurrari eta bere kapritxoei lotuta bizi garela erarik gordinenean gogoratu behar izan dugu. Ez gara jainkoak. 4

photoshop > hotz-beroa



Irudiak eta manipulazioa: A. M.

IRITZIA

Oso gutxitan erabiltzen dugu euskara euskaldunok. Hau zergatik gertatzen den itaundu diogu Xabier Paya itzultzaile eta bertsolari algortarrari.

Zergatik inork ere ez du euskaraz hitz egiten?

Berez, Kristok ere ez du euskaraz hitz egiten. Eta hori oso larria da, euskaltegiak Kristok berak sortu zituelako. Inork ez omen du gogoratzen, baina euskara ere berak sortu zuen, kabreatuta zegoen egun batean. Koadrilakoak bazilatzen ibili zitzaizkion eta tipoa txulo jarri zen; besteak ere berahala pikatu ziren eta elkar ulertzeari utzi. Koadrilako raroenak euskara hautatu zuen. Denek ulertzeko zaila zela esaten zuten. Euskaldunak, berriz, besteen hizkuntza ere ikasi zuen eta heziketa onekoa izaki, bestea erabiltzeari ekin zion. Eta azkenean, Kristori orde, gurutzea euskaldunari tokatu zitzaion. A ze gurutzea!

Nola hitz egingo du jendeak euskaraz! Orain arteko ar(r)azo(i)ez gain, Txan magoaren hizkuntzak ez ditu gizarteko esparru guztiak betetzen. Horra arazoa. Gure etxeko labadoraren instrukzioak txineraz, errusieraz, polonieraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez daude. Bi aukera

dauzkagu euskaldunok: ez zikintzea edo ez garbitzea. Gainera euskara hizkuntza aristokratikoa omen da; ez du giro txarreko ezerekin ezer jakin nahi. Prostitutek ez dakite euskaraz, ez yonkiek. Euskarazko bideojokoetan ez da odolik agertzen, eta odola agertzen den kasuetan, RH positibokoa da. Pelikula pornoetako onomatopeiak ere erderaz ahoskatzen omen dituzte antzezle biluziek.

Zenbat amak botatzen die benetako bronka euskaraz seme-alabei? Zenbatek idazten du egunerokoa euskaraz, inoiz argitaratzeko asmorik izan gabe? Zenbatek egiten du lehen hitza euskaraz alde zurretik ezagutzen ez duen taberna batean? Tira, egia da azken honetan

«Euskara Kristok berak sortu zuen, kabreatuta zegoen egun batean»

gero eta jende gehiagok uste duela kañaren truk emango duen bi euroko txanponak interakzio soziolinguistikoaren gidaritza ematen diola. Txarrenean, ordea, edaleak pentsatuko du elebiduna dela, ez bada euskara gailendutako diglosikoa. Eta ez da konturatuko benetan testuinguru baldintzatutako erdal diglosikoa dela. Ez da nahikoa hitzen euskal eta erdal baliokide guztiak jakitea: hitzok karga pragmatiko bera izan behar dute inguru-testu berean. Anaiak putadarik eginez gero, harengan sentsazio mingarririk eragin nahi badut ez diot “putakume hutsa zara” esango, “eres un auténtico hijo de puta” baizik. Itzulpen semantikoa zuzena da, baina komunikatiboa ez.

Bidea ibiliaz egiten bada, ibil gaitzen eusqueras; behintzat Iturgaitzek beste. Bardin deutso euskalkiak, berdin ergatiboak, galdegaiak, azentukerak, erdarakadak... hizkuntzen kasuan, intentzioa gutxienekoa da. 4

Xabier Paya



ERRAZIN ARTXIBOA. EUSKAL ARKEOLOGIA. ETNOGRAFIA ETA KONDAIRA MUSEOA



ASIER MENTAKA

Iraganez doa denbora* beti / ERRIBERA KALEA 1890-2005

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



ONCEko ordezkar­i Cristino Burgoa eta Getxoko alkate Iñaki Zarracoa

kupoia > Getxoren omenez

ONCE elkarteak Getxori eskainitako kupoia egiteko plantxa eman dio udalari. Otsailaren lehenengo egunean zozkatu zen ONCEko kupoiak Areetako kaiaren pasealekua irudikatu du eta Getxoko armarr­ia ere eraman du. Horregatik Euskal Herriko ONCEko ordezkar­i Cristino Burgoak kupoiak egiteko erabili den plantxa oparitu dio Getxori eta herritarren izenean Getxoko alkate Iñaki Zarracoak hartu du. Otsailaren 1ean zozkatu zen “Getxoren” kupoia­ren 6 milioi kopia egin ziren. Beraz, “Kaltea dagianak, bizarra lepoan” lema atzerrian ere ezaguna izango da. ^m

kale izendegia > Algortako Juan Bautista Zabala



jakingarri > udalen diruak

Eskualdeko udalen aurrekontuak zeintzuk diren jakin gura izan dugu urte hasiera honetan, Uribe Kostako udalek euren proiektuak aurrera eramateko daukaten diru kopurua, alegia. Horretarako, udaletxeetara jo dugu eta alboko taulan dituzue eurek emango zenbatekoak. Batzuk beste batzuk baino gehiago, herritar kopuruaren arabera aurrekontuek ere gora egiten ei dute. Batzuk beste batzuk baino aberatsagoak dira, batzuek oraindino ez dute urte honetarako aurrekonturik onartu, eta beste batzuk egin barik dituzte. Atzemango al dugu urte amaieran non xahutu duten dirua? ^m

Herrien aurrekontuak

	milioi euro	milioi pezeta
Getxo.....	86,5	14.400
Erandio	29,9	4.974
Leioa	29,7	4.944
Sopelana	11,3	1.888
Berango.....	6,1	1.014
Urduliz	3,9	657
Plentzia		onartu barik
Gorliz.....		onartu barik
Barrika		egin barik
Lemoiz		egin barik



El Retablo de la Libertad izenburupean, Vicente Larreak erliebe bat paratu zuen Leioan 1990ean. Sinadurarik ez dauka; "izan ere, batzuetan nire lanak sinatzea ahaztu egiten zait". Hiru atalez osatuta dago: haitzuloa, jakituriaren sugarra (askatasunaren ikurra) eta apurtuta dauden hatz batzuk.

Vicente Larrea > eskultorea

Getxoko Orlegi etxearen albo-alboan daukan lantegi handian hartu gintuen. Bertan zenbait eskulturaren argizarizko zirriborroetan beharrean zebilen: lagun abade batek eskatu dizkion Kristo gotiko flandestar batzuk (*"hamar urtean behin erlijiozko eskultura bat egin ohi dut"*), eta amaitzen dabilen Bilboko San Jose plazarako hirugarren eskultura, besteak beste. Korrontearen kontra ibili izan den artista dugu Vicente Larrea (Bilbo, 1934, *"baina ni Areetakoa naiz, Areet­a da nire herria"*), eta horrek *"bidesari oso garestiak ordaintzea ekarri dit"*. Betidanik gura izan du bere eskulturak publikoak izatea, *"jendea­ri horietan parte hartzeko aukera emateko"*. Makina bat hiritan dauzkagu ikusgai: Chicago, Madril,artzelona, Valladolid... baina batez ere Bizkaian, eta zelan ez, gure eskualdean. Diziplinan sinesten du: *"Interesatzen zaidan bakarra behar egitea da"*, eta horretarako unerik aproposenak eguneko lehenengo eta azkenengo orduak ditu. Vicente Larreak ez ei dauka bere burua filosofotzat edota ikertzaile­tzat: *"Ni narratzaile bat naiz. Nire eskulturakaz istorio plastiko bat kontatzen nabil. Batzuetan abstraktuagoa da; bestetan, oster­a, zehatzagoa. Ez da beti berdin izaten"*. ^m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Jon Urresti**

86,5 milioi euroko aurrekontua

Getxoko udalak 2005erako aurrekontua onartu zuen urte amaierako bezperan, eta **iazko aurrekontuagaz alderatuz gero urte honetarako zenbatekoa %6 jaitsi da**

EAJ, EA eta EB-Berdeak-en aldeko botoakaz onartu ziren 2005 honetarako aurrekontuak. Getxoko Udalak 18.596.253 euro zuzenduko ditu kultur eta kirol bikaintasunaren alde, 28.000.000 euro baino gehiago azpiegituratarako herri atsegin, harmoniko eta iraunkorragoa bihurtzeko asmoagaz, eta iaz baino %13 gehiago pertsona behartsuenen beharriaz erantzuteko.

Urte honetarako Getxoko Udalak 86,5 milioi euroko aurrekontua onartu zuen 2004ko abenduaren 30ean. Pasadan urteko aurrekontuagaz alderatuz gero aurtengo diru-kopuruak %6 egin du behera. Getxoko alkate Iñaki Zarraok azaldu zuenez, *“beherakada hori eman da iaz bezalako inbertsiorik ez daukagulako aurten, besteak beste, iaz Gobelako kiroldegia eraikitzea inbertsio handia izan zen”*.

Hirigintza sailak 28.362.000 euroko (langileen kostuak barne) aurrekontua dauka. Besteak beste, pasealekuak konpondu eta egiteko, espaloiak zabaltzeko, plazak egokitzeko edota bideak berrantolatzeko 1.200.000 euro erabiliko dira. Udarako amaituta egongo ei diren Bidezabaleko aldapa mekanikoek 1.350.000 euroko aurrekontua daukate, eta Villamonteko-entzat aurten 300.000 euro bideratuko dira. Bestalde, garbiketa eta zabor bilketak 10 milioi euroko kostua edukiko du.

Ingurumen sailak 461.000 euro jasoko ditu eta, esaterako, Tokiko Agenda 21 egi-



Kultur Etxearean aurrekontua %5 haziko da aurten

tasmorako, Bolueko hezegunea zaintzeko eta zaratak eragindako kutsaduren aurkako ordenantzaren ekintzak egiteko erabiliko da diru hau. Gizarte Ekintza eta Etxebizitza sailak 9.750.000 euro izango ditu, iaz baino %13 gehiago. Kultura sailak kultur

«Erakunde autonomoetara 17.803.000 bat euro bideratuko ditu udalak»

egitasmoetara 333.000 euro bideratuko ditu, Kirolera 2.391.000 eta Hezkuntzara 2.158.000 euro. Horrez gain, herriko jaietan 137.000 euro gastatuko dituela esan du udalak.

Erakunde autonomoak

Kultur Etxeak iaz baino %5 gehiago edukiko du, lehen Fadura eta orain Getxo Ki-

rolak den erakundeak %8 gehiago, Jesusen Bihotza egoitzak %15,6 gehiago eta Musika Eskolak %2,5 gutxiago. m

Zifra batzuk

- **Kultura saila:** 12.083.000 euro (*)
 - **Hirigintza:** 28.362.000 euro (*)
 - **Gizarte Ekintza saila:** 9.750.000 euro
 - **Ingurugiroa:** 461.800 euro
 - **Turismoa:** 569.000 euro
 - **Euskara:** 1.034.000 euro
 - **Gazteria:** 214.000 euro
 - **Jaiak:** 137.000 euro
-
- **Jesusen Bihotza Nagusien egoitza:** 4.388.000 euro
 - **Andres Isasi musika eskola:** 2.044.000 euro
 - **Getxo Kirolak:** 5.883.302 euro
 - **Kultur-Etxea:** 5.488.215 euro

(*): langile kostuak barne

Caritas 2004ko balantzea

Bost proiektu martxan eta 230 boluntario



Ezker eskuin, Caritaseko Loli Sainz, Paco Castells, Txusa Gonzalez eta Manu Camporredondo

Pasadan urtean Getxoko Caritasek 1.650 lagun baino gehiagori eskaini zien laguntza. Herriko 9 parrokiek osatzen duten Caritasen 230 bat boluntariok jardun zuten 5 proiektu desberdinetan: oinarritzko gizarte ekintza zerbitzua, nagusien akonpainamendua, norabide zerbitzua, umeentzako Kukua proiektua eta Ekorropa denda. Oinarritzko gizarte ekintza zerbitzuak lehengo arreta eskaintzen du, informazioa eman eta laguntza bila nora jo azaltzen du. 1.000 pertsona inguru hurreratu ziren 70 boluntariok daramaten zerbitzu honetara iaz.

Nagusien akonpainamendu zerbitzuak 60 getxoztarri eskaini zien laguntza eta 100 boluntariok dihardute lanean. *Norabide* lan munduan barneratzeko zerbitzua eskaintzen duen proiektua da eta pasadan urtean 562 pertsona hurreratu ziren bertara. Kukua 8-14 urte bitarteko umei aisialdia eta eskola-laguntza ematera bideratzen da. Eta Ekorropa Algortako Sarrikobaso kalean dagoen bigarren eskuko jantzien denda da. Amaitzeko, urtero legez, boluntarioak behar dituzte. m

Harremanetarako: 94 608 00 52

ANDRA MARIN BABES OFIZIALEKO 54 ETXE-BIZITZA ERAIKIKO DIRA

Andra Marin, Ormaza Bekoa aldean, Babes Ofizialeko 54 Etxebizitza eraikiko ditu Getxoko Udalak. Udalak enpresa etxegile pribatu batek gauzatutako akordio baten ondorioz egingo dira etxebizitzak. Hirigintza zinegotzi Andres Uriartek azaldu zuenez, Andra Mariko garagardotegi ohia lekutzen zen eremuan 100 etxebizitza libre eraikiko dira eta horietatik 54 izango dira Babes Ofizialekoak. Horrez gain, akordioan zehaztutakoaren arabera, Udalak bi orube bereganatuko ditu Martituri inguruan, eta etorkizunean bertan enpresa-parke bat egiteko asmoa ere badago.

Inguru honetan eraikiko dira etxeak



ARRETA TELEFONIKORAKO ZERBITZU BERRIA

Administrazioa deszentralizatze eta heritarrekiko arreta hobetzeko asmoagaz Arreta Telefonikorako zerbitzua sortu du Getxoko Udalak. Zerbitzu horren bitartez, heritarrek Udalaren zerbitzuen gaineko informazioa telefonoz jaso ahal izango dute eta hainbat ziurtagiri ere eskatu edo kudeatu ahal izango dituzte. Telefonoa: 902 115 500

TURISMOAK ETA FURGONETAK ALOGEREAN



ZERGATIK EZ AUTO BAT BEHARRIZAN BAKOITZERAKO?

Norbanakoentzat zein enpresentzat; bakarrik nahiz besneria guztiarekin joateko; etxetik inreteko nahiz berori aldean erosteko...

Aukera ugaria ibilgailuak alokatzeko, zeuk hautatu: turismoak, monobolumenak, furgonetak eta ibilgailu industriak.

Beste Alde Ren a Caren auto bat dugu beharrian bakoitzerako. Eta, bestela, zeuretzat egokituko dugu eta zauden lekuan bertan entregatuko dizugu.

Informazio gehiago, **Renault Gaurisa eta Bilbo Berri** kontzesionarioetan

618 88 12 42

e-mail: besteaide@besteaide.com www.besteaide.com

BESTE ALDE



rent a car

GALDETU ENPRESENTZAT DAUDEN BALDINTZAK

Eskiatzera

Bizarra Lepoan eta Egizuren euskarazko eski ikastaroa

Egizu-k eta Bizara Lepoan euskara elkarteak iraupen eskia ikasteko ikastaroak antolatu dituzte, betiko legez euskaraz. Aste-akabu osorako irteera izango da, eta martxoko lehenengo asteburuan egingo da. Somporteko (Jaca) eski estazioan egingo da ikastaroa. Bazkideentzat 100 euroko prezioa dauka: autobusa, forfaita, ikastaroa eta materialaren alokairua, afari bat, bi gozari eta aseguria barne. Bazkide ez direnek, ostera, 125 euro ordaindu beharko dituzte. Izen emateko epea hurrengo da: otsailaren 14tik 23ra bitartean, astelehenetik ostegunera, euskara elkartearen egoitzan. ^m

Informazio gehiago: 94 491 43 57



Oharra

Aldizkaria diruz laguntzen duzuen lagunok, jakin ezazue 2005eko kuota otsailean pasatuko zaizuela bankutik. Aldez aurretik, eskerrik asko.

UK Uribe Kostako Aldizkaria

Larraitz Urra > Bizarra Lepoan-eko dinamizatzailea
“Aurten Erromo eta Areetan ere egingo ditugu ekintzak”



Bizarra Lepoanen egoitza Karitatea 1 kalean (Algorta) dago. Harremanetarako: 94 491 43 57

Bizarra Lepoan euskara elkarteko dinamizatzailea da Larraitz Urra. 24 urteko gazteak Gizarte Hezkuntza ikasi du eta pasadan apirila ezkeroztik dabil euskara elkartearen. Aurten elkarteak Irakurleen Txokoa alde batera utzi behar izan du momentuz, dinamizatzaile faltagatik. Orduan, berak esan duen legez: “Norbaitek lagundu nahi badu hemen ateak zabalik daude, ideiak jasotzeko eta lagundu nahi duenak laguntzeko”.

—Zelan joan zen 2004a?.

—Pasadan urtea nahiko ondo joan da. Ni apirila aldean sartu nintzen elkartearen, orduan nik gehien bat Bapirukeko uda, udalekuak-eta ezagutu ditut. Bapiruke programa oso ondo joan da, 2003ko datuakaz alderatuta umeen kopurua hirukoiztu egin da antolatutako ekintza askotan: udaleku irekietan, Gabonetan... arrakastatsuak izan dira, bai. Uste dut lortu dugula apur bat errefente izatea bai eskoletan baita gurasoen artean ere. Gero, Gazte Saltsa programa daukagu, udan egin genituen ekintzek, surf ikastaroa adibidez, erantzun ona eduki dute. Horregatik horiek guztiak errepikatuko ditugu eta urtero antolatzen dugun nagusientzako eski ikastaroa ere egingo dugu.

—Zein asmo daukazue urte berrirako?

—Asmoa orain arte egin dugunarekin jarraitzea da. Aurten ikastaro berri bat antolatu

dugu: umeentzako txalaparta ikastaroa. Bapiruke programaren barruan udaleku irekiak-eta prestatzen jarraituko dugu, eta agian 12-14 urte bitarteko adin-tartea zabalduko dugu. Bestalde, orain arte egin ditugun ekintzak batez ere Algortan antolatu ditugu, hemendik aurrera Erromo eta Areetan ere egingo ditugu. GEHI hitzarmenari dagokionez, aisialdi eta kultur taldeekin lanean jarraitu, eta Aixerrota institutuan sortu den Euskara taldeari bultzada eman nahi diogu. Eta, zelan ez, begirale ikastaroa eskainiko dugu.

—Zelan bizi da euskara herrian?

—Nahiz eta umeen gehiengoak D eta B erduetan ikasi, erabilera ez da guk nahiko genukeen bezainbestekoa. Ematen du euskara gauza zehatzetarako bakarrik erabiltzen dela. Guk lantzen dugu ume eta gaztetxoan espa-

“Gazteengana joko dugu eta eurei galdetu zer egin daitekeen”

rrua, eta agian gazteria apur bat kili-kolo gelditzen da. Eta uste dugu orduan zeozer egin behar dugula horren inguruan: gazte taldeen-gana jo, koadrilengana, eta galdetu beraiei zer gertatzen den, zer egingo luketen eurek hau aldatzeko... Egiten duten guztia euskaraz egin daiteke eta gu prest gaude zeozer proposatuz gero aurrera eramaten ahalegintzeko. . ^m

Utarsus zendu da

Sorne Unzueta idazle, irakasle eta abertzale bilbotarra **104 urte** zeuzkala hil da



Argazkian, Sorne Unzueta

Sorne Unzuetak (Bilbo, 1900-Urduliz, 2005) Utarsus izengoitiagaz sinatzen zituen erbestetik bidalitako idazlanak. 16 urtegaz ikasi zuen euskara eta 1930 inguruan argitaratu zituen bere euskarazko lehenenego lanak. Igone Etxebarriak *Bidegileak* bildumarako idatzi zuen biografiaren arabera, 1930-33 bitartean poema, ipuin eta artikuluko ugari argitaratu zituen hainbat aldizkaritan (Euzkerea, Bizkaitarra...). Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan eratu zen Emakume Abertzale Batzaren sortzailetakoa ere izan zen Utarsus, kultura zein politika eragile eta hizlari sutsua. Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatu zituen euskal auzo eskoletako irakasle ere izan zen, barbarako: Plentzian,

Gorlizen eta Berangon. Gerra Zibilaren garaian erbestera joan behar izan zuen, baina orduan ere erresistentziagaz elkarlanean jardun zuen. 1953an bueltatu zen herrira.

1968tik Algortan bizi izan zen

Irakasle, hizlari, abertzale, idazle... bilbotarrak gehien landu zuen alor literarioa poesia izan zen, baina prosan ere zeozer egin zuen: eleberri bat (*Me voy contigo*), eta *Txoriyak kayolan*, *Otxua ta txakurra*, *Barri pozgarriya* edota *Bermeo* lanak. Aldizkarietan argitaratu zituen bere lanak eta 97 urtegaz ikusi zituen gehienak liburu batean bilduta, Labayru ikastegiak kaleratu zuen *Idazlan guztiak* liburuan. ^m

GALDEKETA LEHIAKETA ETA MENDI TALDEA IPINI DITU ABIAN EGIZUK

EGIZUkoek Galdeketa lehiaketa antolatu dute. Zure iritzia bil dabilta oraingoan, aurrerantzean antolatuko dituzten jardueretan kontuan hartuko dutena. Euskaldunontzat interesgarriak eta motibagarriak izan daitezkeen ekintzak antolatzeko asmoagaz denon ekarpenak baliagarriak direlako, Galdeketa orria betetzea eskatzen dizute Egizukoek eta orri hori otsailaren 11 baino lehen Egizuren egoitzara eramatea. Galdeketa parte hartzen dutenen artean landetxe batean egonaldia zozketatuko dute. Bestalde, mendi taldea ere osatu dute. Hilaren bigarren zapatuan egingo dituzte irteerak, eta hurrengo ibilaldia Ereñozarrera (Bizkaia) izango da, otsailaren 19an.

Harremanetarako: 605739916

EMAKUME BIDEAK ZIRKUITUA BERRIRO ERE MARTXAN DA

Pasadan urtean erakundearen diru-laguntza faltagatik bertan behera geratu zen Emakume Bideak antzerki amateurraren zirkuitua martxan ipini du berriro ere Getxoko Antzerki Eskolak. Zirkuitua osatzen duten emakumezko 6 antzerki taldeen konpromisoari esker ipini ahal izan dute ostabere abian eskaintza. Hala ere, Erandio izango da gure eskualdean zirkuitua bultzatuko duen bakarra, Getxon ezin izango da ikusi emakumezko antzerki talde hauen ikuskizunik momentuz.

ZUBEROAKO MASKARADA IKUSGAI ALGORTAN

Berangoko Simon Otxandategi dantza taldeak Zuberoako Maskarada antzezten du Algortan otsailaren 5ean. Manixalax, kestua, enñenaria, txorrotzak, bohaumiak... hurbil-hurbiletik ezagutzeko aukera edukiko dute Algortarrek. Jakinmina asetzeko esan ikuskizuna hiru ataletan banatzen dela: Barrikada (kalejira), Branlia eta ofizioarena.

cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo

tfnoak: 944 64 90 87

944 64 86 91

<http://www.cianoplan.es>

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

OTSAILAREN 8AN
HAURRENTZAKO
ARATUSTE EGUNA

Nagusientzako inauteri eguna (otsailak 4) pasatu ondoren, otsailaren 8an, asteartea, haurren txanda izango da. Itxuraz aldatu, aurpegia margotu eta kolorez zipriztindutako mozorroak janzteko eguna. Goizean eta arratsaldean orotariko jolasak eta animazio taldeak egongo dira Sakoneta Kiroldegian atonduko den Haur Parkean. Arratsaldean, 17:00etan Haurrentzako XII. Mozorro Lehiaketara aurkeztuko diren partaideen desfilea egingo da. Gogoratu parte hartzeko izena aurretik eman behar dela Kultur Leioan. Azkenik, mozorrorik ikusgarrienek saria jasoko dute 18:30etatik aurrera.



TRANBIAREN
PROIEKTUAREN
ERAKUSKETA

Urbinaga eta Leioako Unibertsitatea tranbiaz lotzeko egitasmoaren barnean dago Leioa zeharkatu behar duen tranbiaren proiektua. Hain zuzen, Leioa (metro geltoki ingurutik) eta Unibertsitatea lotuko dituen trenbidea proiektuaren lehenengo fasea izango da. Duda barik, garrantzi handiko proiektu honek eragin handia edukiko du herrian. Horregatik, Kultur Leioak proiektua ezagutzera emateko erakusketa antolatu du otsailaren 1etik 11 bitartera. Horrez gain, Tranbiaren Proiektuaren zehaztasun gehiago jakin gura duenak dokumentu guztiak eskuragarri izango ditu udaletxean.

Andrak
emakumearen garapenerako elkarte



Ana Céspedes, Txaro Reigadas eta Lourdes Torres

Leioako Andreen Elkarte Sozio-Kulturala 1990. urtean sortu zen Eskola Agiria ateratzen zebilen emakume talde baten ekimenari esker. Ana Céspedes elkarteke lehendakariak dioenez *“Emakumearen Promoziorako Zentroan konturatu ginen gauza gehiago egin nahi genituela, orduan, bertako begirale batek elkarte sortzea proposatu zigun”*.

Gaur egun 2.000 pertsona inguru biltzen dira antolatzen dituzten jarduerak, tailer edo ikastaroetan. Yoga, kinesiologia, musikoterapia, literatura eta dantzak izaten dira arrakastatsuenetakoak, baina eskaintza benetan ugaria da (masajea, informatika, psikologia, aerobik, osasu-

na, grafologia, artea, birziklatzea, etab.). Honetaz guztiaz gain elkarteak irteerak, liburutegia, hitzaldiak eta lege arazoetarako laguntza eskaintzen ditu.

Elkarteko lehendakari Ana Céspedesek aipatu digunez emakumea bere buruarekin ondo sentiaraztea da helburua, horretarako, *“etxetik atera behar da emakumea eta esparru guztietan garatu, norbere bizitzarekin zoriontsu izateko”*. Ildo beretik, emakumeentzako gomen-dioa; *“guk geuk arduratu behar dugu geure buruaz, dauzkagun gauza onak bala-lora ditzagun, atzera begiratzeari utzi eta ikuspuntu positiboa erantsi bizitzari”*. m

Harremanetarako: 94 464 71 71

Kirol eskaintza handia



Erabiltzaileen mesedetan ordutegia luzatuko dute Sakonetan

Erabiltzaileei zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz Sakoneta Kiroldegiak instalazioak berritu, kirol jarduerak gehitu eta ordutegiak moldatu ditu. Kiroldegiaren itxura hobetzeko egindako berrikuntzen artean igerilekuko aldagelak zaharbertzeaz, muskulazio aretoa txukuntzea, ur instalazio berria sartzea (legionela kontrolatzeko araudi berrira egokiturik), kantzako zorua aldatzea eta squash pista konpontzea aipatu behar dira.

Horrez gain, astebururako jarduerak antolatu eta kirol eskaintza ugaritu dira. Horrela, astegunetan denborarik ez duenak larunbatetan zein igandetan spinning, aerobik, capoeira, aikido eta yoga bezalako kirolak egin ahal izango ditu. Ordu-

tegia ere erabiltzaileari begira hobetu egin da eta ordutegi berrian Sakoneta Kirodegiak 07:00etatik 22:00etara zabalik edukiko ditu ateak (larunbat, igande, zubi eta jaiegunetan 08:00etan irekiko da).

Instalazioetako zuzendari Luis Angel Gomezek azaldu digunez, *“instalazioa txikia izateagatik erosotasuna eta erabilgarritasuna bilatu ditugu”*. 1983. urtean eraiki zen Kiroldegia eta ordutik hona biztanle kopurua ia bikoiztu egin da. Instalazioen Arduradunaren esanetan Kiroldegi berri baten eraikuntza ez dago urrun, *“dagoeneko jasota daukagu nolako izan behar duen instalazio berriak”*; dena dela, *“azkeneko erabakia udaleko agintariena da”*. m



Argazkian, Valentin Bazan

Kandelazubietako
Farmazian botikak
euskaraz eska daitezke

Ez da arraroa saltoki honetara sartu eta euskara entzutea. Diaz-Bazan Farmaziak 12 urte daroaz Kandelazubietako auzokideei zerbitzu ematen eta Valentin Bazan botikari lekeitiarrak azaldu digunez badago euskaraz eskatzen duen jendea, *“ikusten dot gero eta gehiago egiten dabela euskera eta ganera badago jentea euskeraz gura dabena egin”*. Farmazian lan egiten duten sei pertsonetatik lauk ulertzen dute euskara. *“Euskera bik egiten dogu, eta beste bik aitu egiten dabe, baina barbarik ez dabe egiten”* diosku Valentinek. Medikamendu munduan euskararen presentzia hutsaren hurrengo bada ere, *“Bizkaian talde bat elkartu da euskera sustatzeko; hiztegi bat be sortu dabe”* diosku. m



**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu**

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA



— 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.

— Ingelera 4 urtetik aurrera.

— Frantsesa DBHn.

— Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.

— Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...

— Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Aiboa Casares > euskal presoa

“Zoragarria da maite dituzun pertsonak ikutu ahal izatea”

SEGI gazte erakundearen aurkako sarekadan atxilotu zuten 2002ko martxoan eta orain epaituko dute Madrilen. Bera da gure eskualdeko “ordezkaria” 18/98 sumarioan. 14 urteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak Aiboarentzat SEGI erakundeko partaide izateagatik. Sumario horren aurkako ekimenen artean eskualdeko manifestazioa egongo da otsailaren 11n, 19:30etan Astrabuduan, Aiboaren auzoan. Guk abenduan bidali genion galdera sorta hau orduan preso zeukaten Brievako kartzelara, oraindik fiskalaren eskaria eta epaiketa egunak finkatu barik zeudenean.



Argazkian, Aiboa Casares

—Aiboa, zure 23 urteetatik ia hiru daramatzazu preso. Nondik ateratzen duzu kartzelaldiko egoera gogorrari aurre egiteko indarra?

—Zer dakit nik! Kartzela oso pisutsua da. Hemen barruan ikusi izan dut urte eta erdiko kondena zuen emakume bat egun osoan negarrez, egoera jasangaitza zitzaio-lako. Eta ikusten ditut euskal preso politikoak, urte luzeetako kondenak dituztenak, espetxeko egunerokotasun gogorrari alaitsu eta kementsu aurre egiten. Akaso, herri oso baten babesa sentitzen dugulako gure atzean, edo egoera hau egokitu zaidala eta modurik onenean eramatea erabaki dudalako. Eta duda izpirik gabe, familia eta lagunen laguntza eta maitasuna dudalako. Beraiek gabe hau guztia oso ezberdina litzateke.

—Zelakoa da zure ohiko egun bat? —Hemen egun normal bat kidetasunez, kontrolez, maitasunez, eztabaidaz, umo-

rez, zenbaketez, kirolez, elkartasunez... beteta dago.

—Zeintzuk dira zure ilusioak?

—Biharko bisa da gaur nire ilusioa, ama berriro ikustea eta ikutzea da nire ilusioa. Ama bera ere preso dago Valentzian eta ez

«Biharko bisa da gaur nire ilusioa, ama berriro ikustea eta ikutzea»

dugu elkar ikusi denboraldi honetan guztian; eta maite ditudanak ikutu ahal izatea, hori bai zoragarria! Eta nola ez, euskal errepresaliatu guztiak Euskal Herri maite-ra bueltatzen garen eguna iristea.

—Eta zure kezka?

—Senideek eta lagunek gurekin 40 minutuz egoteko astebururo egiten dituzten bidaia luzeak, hor dago Karmele Solaguren heriotza oraintxu. Kideak urte luzeetan ez ikusteak ere kezkatzen nau. Hemen barruan beste familiatxo bat osatzen duzu, baina nahi dutenean edonor eraman dezakete beste nonbaitera eta ahizpa baten moduan maite duzun lagun hori luzaroan ikusi gabe egon zaitezke.

—Zer kendu dizu kartzelak?

—Inozentzia eta, jakina, intimitatea. Hemen barruan begi eta belarri arrotzek kontrolatua dago dana; ez dago ‘maite zaitut’ esaterik kartzeleroen kontrolik gabe eta kontuz esaten edo egiten duzunarekin, ahal izanez gero zure kontra erabiliko dute eta.

—Eta eman, ezer eman dizu?

—Galdera hori gaizki egina dago, kartzelak ez baitizu ezer ematen. Kartzelari dana lapurtu behar diozu. Presoak anikilatzeko diseinatuta daude kartzelak eta zer esanik ez euskal preso politikoen kasuan. Baina egoera latzenei ere badago alde ona ateratzerik. Jende zoragarria ezagutzeko aukera izan dut hemen barruan, kalean ezagutuko ez nukeen modu batean gainera. Neure burua hobeto ezagutzeko denbora ere izan dut, baina borrokaren beharraz jabetzea izan da nire ikasgai nagusia. Hemen, kalean bezala, gauza guztiak borroka bidez lortzen dira, etsaiak ez digu ezer oparitzen.

—Elkarrizketa amaitu aurretik gehitu nahi duzu zeozer?

—Bai, espetxean pairatzen dugun egoera Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa-ren ondorioa besterik ez dela eta hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia dela ahoa hitz potoloez betetzen duten horientzat ere. Ekin lanari eta SEGI aurrera. m

Erandio zenbakitan

40 urte arte gizonezkoak nagusi, 40tik gora emakumezkoak

Beti entzun dugu emakumezkoak gehiengoa direla mundu honetan eta halaxe da gure herrian ere. 2004ko azaroaren amaieran 11.539 gizonezko eta 11.876 emakumezko zeuden erroldatuta. Baina datuetan arakutzen ibili ondoren, bitxikeria batzuk topatu ditugu. Esaterako, sexuaren eta adinaren aldagaiak kontuan hartuta, emakumeak ez direla nagusi adin tarte guztietan. 40 urte arteko andrazko baino gizonezko gehiago dago herrian: 479 gizon gehiago. Baina hortik aurrera, balantzak emakumeen aldera egiten du eta hamarkada bereko emakumezko kopuru handiagoak daude estatistiketan. Argi dago gurean ere jubilazioaz disfrutatzeko aukera gutxiago dauzkatela gizonezkoek eta 90 urtera iristen diren lau lagunetik hiru andrazkoak direla. Hala ere 101 urtetik gorako pertsona bakarra gizonezkoa zen.

Azpitarratzekoa da, baita ere, biztanleen %16 baino ez dela hogei urte edo gutxiagokoa eta nabarmena da 21 eta 40 urte arteko jende kopurua: 8.256 (%35,6).

Datu hauek guztiak Erandioko Udaleko Estatistika Sailak biztanleriari buruzko datuak bilduz azaroaren amaieran egin-dako txostenetik atera ditugu. m



	Biztanleak	Gizonezkoak	Andrazkoak
Altzaga	10.077	4.913	5.164
Arriaga	591	291	300
Astrabudua	10.393	5.203	5.190
Asua-Lauroeta	367	176	191
Goikoa	977	453	524
Goierri	613	292	321
Lutxana-Enekuri	397	211	186

EUSKARAZKO FILM LABURRAK

Otsailaren 24an, euskarazko film laburren emanaldia egongo da Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean, Berbots Erandion euskaraz elkarrekin antolatuta. Iluntzeko 20:00etan hasiko da 70 minutuko emanaldia, eta bost film ikusi ahal izango dira: Koldo Almandozen *Amuak*, Angel Burgañaren *Amnesia*, Ane Muñozen *El salto de Beamon*, Iñigo Kintana eta Iñaki Beraetxeren *Ostertz* eta Safy Nebbouren *Lepokoa*. Emanaldiaren amaieran film horien zuzendarietako bat egongo da bertan azalpenak emateko eta ikusleen galderei erantzuteko.

Topaguneak, euskara elkarteen federazioak, hainbat ekimen bideratu ditu azken urteotan euskaraz sortzen duten kulturgileen lana ezagutzera emateko asmoz. Iaz film laburrak erakusteko zirkuitua abiatu eta bost film laburrez osatutako 23 emanaldi eskaini zituen. Aurten beste bost film desberdin aukeratu ditu eta Euskal Herriko 22 herritan erakutsiko ditu.

BARRE BIRA

Erandioko Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuta, *Barre Bira* ikuskizuna izango da Bekoa ikastetxeko areto nagusian, otsailaren 12an, arratsaldeko 18:00etan. Txan mago zoragarria, panpina zoragarri ingurututako Elvi Sabelhiztuna eta Gari, Montxo eta Joselontxo pailazo dibertigarriak ordu eta erdiko ikuskizun bakarrean. Hala diote euren publizitatean eta horrela den ikusteko aukera egongo da datorren zapatuan Erandion. Sarrera libre izango da bertara joan gura duten guztientzat.

Arasa
Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa
Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

san inazio

autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

altzaga
ikastola
erandio bhi

HAUR HEZKUNTZA (2-6)

LEHEN HEZKUNTZA (6-12)

BIGARREN HEZKUNTZA (12-16)

Garraioa eta jantokia

Eskolaz kanpoko ekintzak

Kukularra bidea, 8 • Tel.HH-LH: 94 467 17 05 • DBH: 94 467 15 13 • Faxe 94 467 09 36 • 48950 ERANDIO

TXA TXAN UMEENTZAKO
ETA GAZTEENTZAKO
ELKARTEAK LASTER
EKINGO DIO LANARI

Txa Txan aisialdirako elkarte berria sortu da herrian. 10 eta 14 urte bitarteko umeei eta gazteei begira eratu den elkarteak bazkideak gurasoak izango dira. Bazkide izan ahal izateko Hall-Kulturalean izena emateko orri bat bete beharko dute. Ostean, taldeko kuota ordaindu eta hilaren 14tik aurrera Hall-Kulturalera eraman beharko dute, orduan egingo da-eta bazkide karneta. Txa Txanen aurkezpen festa otsailaren 26rako aurreikusten da. Udalak lokal batzuk utziko dizkio elkarteari eta ekintzak martxotik aurrera egingo dira.

Elkartearen logotipoa



MAITASUN GUTUNEN
LEHIAKETA ANTOLATU
DUTE

“Maite, maitea... 2005” maitasun gutunen lehiaketa antolatu du Hall-Kulturalak. Lanak otsailaren 9a baino lehen eraman behar dira Hall-Kulturalera (arratsalde) edo Turismo Bulegora. Eskutitzak euskaraz zein gaztelaniaz idatzitakoak izan daitezke eta gehienez 2 orrialdeko luzera edukiko dute. Bi maila daude: gazteak (12-16 urte eta 16-18urte) eta nagusiak (18-60 urte eta 60 urtetik gorakoak). Irabazleak erabakitzeak epaimahaia hizkuntza, literatura eta komunikazioaren profesionalek osatuko ei dute. Sari banaketa Hall-Kulturalean San Valentin egunean egingo da 19:00etan.

Urte osorako egitasmoak

la 11.350.000 euroko aurrekontua dauka Udalak



Herriko zakarrontziak lurperatuko dituzte

Pasadan urte amaieran azaldu zituen Sopelanako alkate Imanol Garaik Udalak 2005erako zeuzkan egitasmoak eta aurrekontua: 11.349.438,25 euro. Iazko kopuruagaz alderatuz gero %13,5 egin du gora 2005erako zenbatekoak.

Egitasmo nagusien artean zakarrontziak lurperatuko dituztela azaldu zuen Garaik. Urko kiroldegirako bidean espaloiak egingo dira eta, inguru horretan ere, Korredorearen lanak egiten hasiko dira laster. Atxabiribileko hondartza aldean egiten dabiltzan lanak udarako amaituko dituztela esan zuen alkateak eta biribilgunetik hondartzarainoko bidea oinezkoentzako bakarrik izango

dela. Arrietarako hondartzako aparkalekuan, ostera, TAO sistema ipiniko da. Horregaz lotuta, Garaik azaldu zuen legez, udalerrian zehar TAOa jartzea aztertzen dabil udala. Bestalde, aparkaleku arazoak direla-eta, Jauregizar plaza azpian aparkaleku bat egingo dute.

Horrez gain, apaitzekoa da Zaldun inguruan auzo-etxe eta kultur zentroa eraikiko dituztela eta liburutegia ere hantxe ipintzeko asmoa daukatela. Gainera, udaletxeko sotoa erakusketak ipintzeko egokituko dute.

Amaitzeko, Zaldun eta metro ondoan 29 eta babes ofizialeko 49 etxebizitza egingo dituzte, hurrenez hurren. ^m

Munarrikolanda mendi taldea

Hilero mendi irteera bat antolatzen

dute eta 100 bazkidetik gora dauzkate



Argazkian, Aitor eta Andoni elkarteak

Zazpi urte daramatza lanean Sopelanako Munarrikolanda mendi taldeak. Gimnasio batean elkar ezagutu zuten lagun batzuek eduki zuten mendi taldea osatzeko ideia, 1998ko maiatza zen orduan. Taldeak egin zuen lehenengo mendi irteera Aralarra izan zen, ordutik zenbat gailur? zenbat ibilbide?

Gaur egun 100 bazkide baino gehiago dauzka Munarrikolandak, eta eskualde osoak gainera. Bazkide horietatik guztietatik kopuru handi bat federatuta daude, 70 bat mendizale. Mendi taldeko lehendakari Andoni Estebanek azaldu digunez hilero-hilero mendi irteera edo ibilbide bat antolatzen dute, “*normalean domeketan izaten dira, aste-akabu osorako irteerak ere antolatzen ditugu, eta bazkideak ez direnak ere etor daitezke*”.

Bestalde, Sopelanako jaietan urtero-

urtero mendiaren gaineko jardunaldiak antolatzen dituzte. Horrez gain, Estebanek jakinarazi digunez, taldeko hainbat kidek bestelako irteerak ere prestatzen dituzte: mendiko bizikleta, eskalada, alpinismoa, arrolak, izotz hormak... eta abarretara joateko irteerak hain zuzen.

Liburutegia eta materiala alokairuan

Munarrikolanda taldeak mendiari lotutako liburuakaz, mapakaz eta aldizkariakaz osatutako liburutegi handia ere badauka, herritar guztientzat zabalik dagoena. Mendiko materiala ere alokatzen dute, baina hori egin ahal izateko bazkide izan behar duzu. Lehenengo urtean bazkide izateko 12 euro ordaindu behar dira, eta hurrengo urteetan 10 euro. ^m

Informazio gehiago: www.munarri.com

SOPELANAKO GAUAK BERRIRO ERE MARTXAN DIRA

Urtero legez Sopelanako Udalak martxan ipiniko du Sopelanagauak programa. 14 urtetik gorako neska-mutil gazteentzako programa otsailaren 11an hasiko da, hitzordua barikuetan izango da 22:30etik 01:30era Abadesoloko igerilekuetan. Hennazko tatuajeak, rol jokuak, sabel-dantza, tai-chi... lantegi moroda antolatuko da, eta gura duenak Hall-Kulturalean eman behar du izena.

LAIKAK
Taberna

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tif. 94.6760328

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneako menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutsa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991

guri haize jarri eta edan

4 bide
pinturak

RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gutxi
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

TINDUF-ERAKO ETA
ASIARAKO LAGUNTZAK

Tinduf-eko (Argelia) errefuxiatu saharaiantzako eta Asia hegoekialdeko itsasikararen biktimantzako laguntza bidaliko dute Berangoko Udalak eta berangoztarrek. Saharako laguntzarako kamioi bete elikagai lortu zuten herritarrek urtarila aldean eta orain “tsunami”-en biktimantzako laguntza jasoko dute. Horretarako, otsailaren 5erako pilotalekuan antolatuta den Inauteri jaian diru-laguntzak biltzeko kutxa bat ipiniko da.

“18 EGILE - 18 ARGAZKI,
URIBE KOSTAKO IRUDIAK”
OTSAILAREN 13RA ARTE

Pasadan urtean aldizkari honek antolatutako erakusketa ibiltaria Berangoeta kultur etxean egongo da ikusgai otsailaren 13ra arte. Uribe Kostako 18 argazkilari handik utzitako 18 argazki apartek osatzen dute erakusketa. Iazko UKren aleen erdialdean argitaratu ziren argazkiak eta orain erakusketa modura Uribe Kostako kultur-etxeetan ipiniko dira ikusgai.



Aitor Galbarriartu

Udalaren egitasmoak **2005erako**



Basotxu auzoan hobetze lanak egingo dira

Berangoko Udalak pasadan urte amaieran onartu zituen 2005ean egin beharrako lanak eta egitasmoak, baita horiek gauzatzeko aurrekontua ere: 6.094.512 euro. Ezker Batuak urte amaieran egindako kritikei erantzunez, “atzerakoiak” eta “aberatsen mesederako” zirela esan zuten, Miren Dobaran alkateak azaldu du aurrekontuak hertsiki-hertsirik daudela Plan Estrategikoari lotuta: “nire ustez herrikoiak dira, Plan

Estrategikoan herritarrek parte hartu zutelako, orduan EBak esan nahi du herriak eskatu dituen gauzak atzerakoiak direla?”

Axgane eta Basotxu auzoak goitik behe-ra konponduko direla azaldu du Dobaranek: argiztapen sistema lurperatu, espaloiak zabaldu, saneamendua egokitu... Egitasmo honetarako aurrekontuaren zenbateko handi bat erabiliko du Udalak. Horren albotik, Ubao bidea (Santa Ana) eta Itze bidea ere konponduko ditu, birrasfaltatu hain zuzen. Udalerriako irisgarritasun planari lotuta udaletxeko eskailerak kenduko ditu eta sarrera egokitu du. Bestalde, Kultura sailera 120.000 euro bideratu ditu, iaz baino %20 gehiago. Euskara Biziberritzeko plana bultzatzeko ere iaz baino %20 gehiago zuzendu du: 110.000 euro. Ingurugiroari dagokionez, *Agenda 21* egitasmoaren diagnostikoa eginda dago eta udaberrirako Ekintza plana aurkeztea espero du Dobaranek. Berdintasunerako partidak %20 egin du gora eta garapen lankidetzako proiektuetara aurrekontuaren sarrera orokorren %0,4 bideratuko du Udalak, baina Dobaranek esan legez: “*legegintzaldi amaieran %0,7 izatea espero dugu*”. m

Jose Antonio Esteban > Bar -20ko tabernaria

“Seguruenik, laster itxi egin beharko dut Plentziako geltokiko taberna hau”



Joseanen familiak 40 urte baino gehiagoz jardun du Plentziako tren geltokiko tabernatxoan

Gure eskualdeko geltokietako azken taberna da *Bar -20*. Antzina tren geltoki ia denek tabernatxoa zeukaten, orduko tren gutxi ibiltzen zen lehen eta haiei itzaroteko leku goxoak ziren geltokiko tabernatxoak. Eskualdean zutunik geratzen den taberna horietako bakarraren tabernaria da Jose Antonio Esteban, edo lagunek esaten dioten legez, Josean. “*Nik orain dela 5 urte hartu nuen taberna, baina nire familiak 40 urtetik gora daroaz hemen*”, diosku Joseanek. Taberna eta orduan tren geltoki deitzen zena-ren inguruan -gaur metro geltoki esan behar dugu, ezta?- egin du txikitatik bere bizimodua. Praka-laburretako garai haiek gogoratzean zera diosku: “*gauzak asko aldatu dira, orduan jendeagaz, pikakaz, tren-gidariakaz etabarregaz geneukan harremana estuagoa zen, familiarreko harremana zen; orain, ostera, hori guztia galdu egin da, ez dago harremanik*”. Atzerantza begiratzerakoan tren zahar-rrak eta haur garaiak dakartza oroimenetik

Joseanek: “*umetan tren zaharretan igotzen uzten ziguten, doan, hori bai, gero zakuak, mailetak-eta jaisten laguntzen genien. Orduan, trenak askotan martxan zeudela salto eginez hartzen ziren, gaur egun txirrinak jotzen du eta agur...*”. Bere aitona ipini ei zion izena tabernari: “*nik uste trenen ordutegiagaz zerkusia zeukalako ipini ziola, oker ez banabil*”.

Azkenak agur esan behar al du? Tabernako zerbitzua emateaz gain, “*metroko banku ere izan gara*”, diosku Joseanek. “*Jendea dirua aldatzera etortzen da gurena, eta aurreko jatetxea metroaren komuna da*”. Bar -20 alokairuan izan du beti Joseanen familiak, berez metrokoak dira jabeak. Joseanek azaldu digunez, esamesek diote metrokoak tabernatxoa itxi guran dabil-tzala, “*seguruenik, laster, taberna itxi behar-ko dut*”, aitortu digu apalki.

Denbora aurrera doa, eta bidean gal-tzen gailtzanaz ez al gara damutuko? m



TXIBERRI
e d a n t o k i a
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



krimea

Negubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA



VILLABOTAS
JATETXEA



Menu merke eta askotarikoak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44



**ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!**

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

ARATZ DANTZA TALDEAK
LANTZEKO INAUTERIAK
ANTZEZTUKO DITU

Gorlizko Aratz dantza taldeak Lantzeko inauteriak antzeztuko ditu otsailaren 5ean, zapatua. Itsasbide eta Eliz plazen ingurura hurbiltzen denak Miel-otxin, Ziripot, Zaldiko, txatxoak, arotzak, etab. ikusteko eta dantza eta mugimendu zoroaz gozatzeko aukera edukiko du. Ikuskizuna 17:00etan hasiko da.

LEMOIZ ARRANTZAREN
GAINBEHERARI AURRE
EGITEKO HERRI-SAREAN

Lemoiz, beste hamabi herrigaz batera, arrantzaren gainbeherari aurre egiteko herri-sarea osatzen dabil. Sarea osatzeko lehenengo batzarra egin dute dagoeneko eta hauek dira parte hartu duten udalak: Bermeo, Elantxobe, Lekeitio, Lemoiz, Mundaka, Ondarroa, Zierbena, Getaria, Hondarribia, Mutriku, Orio, Pasaia eta Zumaia.

INAUTERI JAIA EGINGO
DUTE BARRIKARREK
HILAREN 7AN

Aratusteak ospatzeko hainbat ekitaldi antolatatu dituzte Barrikan. Hitzordua otsailaren 7an ipini dute herriko liburutegian. 17:30ean ipuin-kontalariaren txanda izango da eta “Kontu-kontari, kontu-kantari” ikuskizuna eskainiko du. Hori amaitutakoan, 18:30ean gutxi gora-behera, Inauteri jaiari emango zaio hasiera.

GORLIZ

Gazte Plana bigarren fasean sartu da



Etxebizitza lortzea gazteen arazo handienetakoa da

Gorlizko Udalak pasadan urte amaieran ipini zuen martxan tokiko Gazte Plana. Jadanik lehengo zatia eginda dago: udalerriko gazterien diagnostikoa. Eta orain planaren bigarren zatia mamitzen dihardute. Bigarren zati honek sustapena eta parte-hartzea bulzatzea dauzka helburu, eta horretarako dinamika parte-hartzaileak eta lan-mahaiak antolatuko dituzte. Horietan gazte-ariagaz diharduten elkarte edota agente sozilek hartuko dute parte, baina baita planaren

hartzaileek ere, hau da, gazteek. Gazte-riarengan eragina daukaten alor bakoitzaren egoera zehaztea da asmoa: lan-mundua, hezkuntza eta prestakuntza, etxebizitza, aisialdia, gizarte ekintza, kultura, etab. Ostean, planaren hirugarren zatian, jarraitu beharreko eginbeharrak finkatzeko ekintza plana osatzeari ekingo diote. Eta azkenik, laugarren atalean, komunikazio, sustapen eta aholkularitzara zuzenduta ekintzak egingo dituzte. m

Otsailak 5-20

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Fax.: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Consuelo Lluva Bilbao-ren lan grafikoa eta eskulturak.** Erromoko kultur etxea. Otsailaren 12ra arte.

► **Arte Ederretako irakasleen olioen erakusketa.** Algortako kultur etxea. Otsailaren 19ra arte.

► **Unai Momotio-ren akuarelak.** Erromoko kultur etxea. Otsailak 15-26.

► **Hugo Tobio Suarez-ren argazkiak.** Algortako kultur etxea. Otsailak 21- martxoak 5.

BERANGO

► **18 egile-18 argazki. Uribe Kostako irudiak, argazkiak.** UK aldizkariak bultzatutako erakusketa ibiltaria. Berangoeta kultur etxea. Otsailaren 13ra arte.

PLENTZIA

► **Plentziako ludotekaren ibilbidea urteetan zehar, argazkiak.** Erakusketa gela. Otsailaren 15era arte.

► **18 egile-18 argazki. Uribe Kostako irudiak, argazkiak.** UK aldizkariak bultzatutako erakuketa ibiltaria. Erakusketa gela. Otsailak 16-30.

LEIOA

► **Hontza T kolektiboaren margo erakusketa.** Kultur Leioako erakusgelan. Otsailaren 18ra arte.

► **Magic Pencil.** British Concilaren laguntzagaz. Kultur Leioako erakusgelan. Otsailaren 14tik aurrera.

ANTZERKIA

GETXO

► **Ohe handi bat.** Logela Multimedia. Kantuketan zikloaren barruan. Getxo Antzokia. Otsailak 11, barikua. 20:00. Sarrera doan.

LEIOA

► **Eduardo II.** Kultur Leioa. Otsailak 18, barikua. 20:30.

GORLIZ

► **Ray Bueno.** Ipuin-kontalaria.



► Antzerkia

“Euskararen 7 bekatu nagusiak” Algortan

Korrika-AEK bekaren 2. deialdia irabazi duen “Euskararen 7 bekatu nagusiak” antzerki lana Getxon ikusi ahal izango da otsailaren 10ean. Lanaren testua Aitzpea Goenagak idatzi du eta Olatz Beobidek eta Edi Naudok zuzentzen dute. POK antzerki taldeak Korrika-AEK bekarako prestatutako antzerkia da eta taula gainean hiru aktore ezagunek jardungo dute: Niko Lizeagak, Mikel Laskurainek eta Lierni Fresnedok. Bekatu bakoitzari atal bat eskaintzen dio ikuskizunak eta umorea, gogoeta, ironia, barreak... ez dauzka faltan.

• **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** Otsailak 10, eguena • **Ordua:** 20:00.

Euskaraz. Eloisa Artaza kaleko gela. Otsailak 26, zapatua. 18:30.

BERANGO

► **Adi-Adi.** Inauteri jaiaren barruko ekitaldia. Berangoeta kultur etxea. Otsailak 5, zapatua. 18:00.

BARRIKA

► **Kontu-kontari, kontu-kantari.** Ipuin-kontalaria. Inauteri jaiaren barruko ekitaldia. Otsailak 7, astelehena. 17:30.

ZINEMA

GETXO

► **Cronicas de un asesino.** Getxo Antzokia. Otsailak 9, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

► **Una película hablada.** Cinema Paradiso. Azpitituludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Otsailak 11, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.

► **Bombom el perro.** Getxo Antzokia. Otsailak 16, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

► **Nine songs.** Cinema Paradiso. Azpitituludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Otsailak 18, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.

► **Zafarrancho en el rancho.** Haur Zinema. Getxo Antzokia. Otsailak 20, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

► **Veronica Guerin.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Otsailak 23, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

GORLIZ

► **Asterix galiarra.** Erakusgelan. Otsailak 13, domeka. 17:00.

LEIOA

► **Obsesion.** Zine komertziala. Kultur Leioaren Auditoriuma. Otsailak 5 19:00 eta 22:00. Otsailak 6, 20:00. Otsailak 7, 20:00. Sarrera: 4 euro. Astelehenean 3 euro.

► **Los Increibles.** Haur zinema. Kultur Leioaren Auditoriuma. Otsailak 6, domeka. 12:00. Sarrera: 3 euro.

► **Chicago.** Perseo zineforuma. Musikalen zikloa. Kultur Leioaren Auditoriuma. Otsailak 8, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

► **La busqueda.** Zine komertziala. Kultur Leioaren Auditoriuma. Otsailak 12, 19:00 eta 22:00. Otsailak 13, 20:00. Otsailak 14, 20:00.

► **Azti Ikaslea.** Haur zinema euskaraz. Kultur Leioaren Auditoriuma. Otsailak 13, domeka. 12:00. Sarrera: 3 euro.

► **West side story.** Perseo zineforuma. Musikalen zikloa. Jatorrizko bertsioan. Kultur Leioaren Auditoriuma. Otsailak 15, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

► **Los chicos del coro.** Zine komertziala. Kultur Leioaren Auditoriuma. Otsailak 19, 19:00 eta 22:00. Otsailak 20, 20:00. Otsailak 21, 20:00.

► **The Rock Horror Picture show.** Perseo zineforuma. Musikalen zikloa. Kultur Leioaren Auditoriuma. Otsailak 22, martitzena. 20:00.

MUSIKA

GETXO

► **Kepa Junkera, Sylvian Luc, Maddi Oihenart, Lokua Kanza, Keyvan Chemirani.** Kantuketan zikloaren barruan. Getxo Antzokia. Otsailak 6, domeka. 19:00. Sarrera: Otsailaren 5era arte 8 euro, hortik aurrera 10 euro.

► **Sagarroi, Kerobia eta Kauta.** Kantuketan zikloaren barruan. Portu Zaharra. Otsailak 12, zapatua. 20:00. Doan.

► **Bolona-molona, Imanol in Memoriam.** Xabier Lete, Pier Paul Berzaitz, Iñaki Eizmendi, Niko Etxart eta Antton Valverde. Getxo Antzokia. Otsailak 3, domeka. 19:00. Sarrera: hilaren 12ra arte 5 euro, hortik aurrera 6 euro.

LEIOA

► **Xomorroak.** Haurrentzako musikala euskaraz. Kutur Leioa. Otsailak 20, domeka. 12:00. Sarrera: 3 euro.

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114


48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net

[albuma]



Islama Getxon ikusgai

“Islam, guztion ondare” erakusketa egongo da Faduran hilaren 11ra arte. Kordobako meskitatik heldu den erakusketak kultura eta erlijio islamikoa hurbilagotik ezagutaraztea dauka helburu, eta bide batez, ezagutu eta ulertu ezak askotan sortzen dizkigun aurreiritziak gainditzen laguntzeko asmoa ere bai. Erakusketa argazkiez eta testuez gain, kultura islamikoan ohikoak diren musika, soinu, zapore eta usainez dago osatuta: jasmin, larajondo-lore, jengibre... Zabaldu begiak, garbitu belarriak, arnas egin sakonki, ahozerua prestatu... Euskaldunoz ere jendeak aurreritziak dauzka-eta!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Data zehatzagorik ezean “betidanik” dauden ohitura horietakoa da Agate Deunaren omenezko koplak kantatzea. Uribe Kostako herri gehienetan eten barik abestu izan dira, eta gaur egun eskualdeko herri guzti-guztietan nonork urteten du kalera, makila eskuan, tradizioari eustera. Zenbait herritan, gainera, lehiaketak antolatzen dira jendea kantatzera bultzatzeko. Hala, lagun mordoa ateratzen da urtero III. mendean bizi izan zen emakume sizio-liarrari abesten. Eta bide batez dirutxua lortzen da. Hori ere ohituraren zati bat da eta!

Gure martiri maitea

Agate Deuna, Uribe Kostan sendo

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Berba desberdinak

Gauza jakina da Agate Deunaren koplak berbak ez direla beti berdinak. Herririk herri, eta talderik talde, aldatu egiten dira, eta batzuetan moldaketak ere egiten dira. Halaxe egin du, esaterako, Plentziako Txikitero Elkartek, abestiaren berbak zahar egoitzari agurra izan daitezen. Beharbada ez dakizuen zera da: ondoko bertso ezagun hauek Ebaristo Bustinza *Kirikiño* (1866-1929) idazleak asmatu zituela. Hona hemen.

*Aintzaldu daigun Agate Deuna
Bihar da, ba, Deun-Agate
Etxe honetan zorion hutsa
Betiko euko al dabe*



Otsailaren 4a da eguna. Oso antzinatik, Uribe Kostako herrietan, Euskal Herriko asko eta askotan bezala, giza-taldeen kalera urteten dute, makil handiak lagun dauzkatela. Agate Deuna egunaren bezpera da, eta santuaren omenezko koplak abestea da ohitura. Uribe Kostan herri bakar bat ere ez da geratzen kantuak entzun barik. Gitxi ala asko, guztietan dago urteroko erritualari ekiten dion talderen bat.

Lehiaketa eta guzti

Getxon, Leioan eta Sopelanan, udaletxeek lehiaketak antolatzen dituzte, kultur etxeen bitartez, Agate Deuna bezperan parte har-

tzearren, antolatzaileek ezarritako baldintzak betez gero, jakina. Jeneralean, baldintzok taldeko parte-hartzaile kopururari, jantziei eta abestu beharreko lekuei dagokie, baina ez dira herri guztietan berdiz izaten. Leioan, berriz, benetako lehiaketa dugu. Epaimahaia dago, eta sariak dirutan. Gainera, dirua ematen zaie, Getxon eta Sopelanan bezala, parte-hartzaile guztiei.

Hiru herri hauetan parte-hartze polita lortu da lehiaketei esker. Getxon, esaterako, 45 talde inguru egoten da arratsalde, helduen taldeen parte hartzen dutenean (goizez ikastetxeak ibiltzen dira). Enrike Bosque Kultur Etxeko langilearen ber-

«Getxo, Leioa eta Sopelanan lehiaketak antolatzen dira ohitura suspertzeko»

tzea suspertzeko. Getxo eta Leioaren kasuan, gainera, aspaldi hasi ziren: hemeretzi eta hamaseigarren edizioak dauzkate aurretik, hurrenez hurren.

Hala ere, Getxokoa eta Sopelanakoa sasi-lehiaketak direla esan behar da. Hau da, ez dago irabazlerik ez eta saririk (Getxon bazegoen, hasieran, baina azkenean aldatu egin zen). Hori bai, talde bakoitzak diru kopuru bat jasotzen du parte har-

betan, “*gitxi gorabehera 3.500 lagun ateratzen dira kalera Agate Deuna ospatzen*”.

Agate Deuna bezperan bakarrik ez

Hitzordua otsailaren 4an dela esan dugu hasieran, baina beste egun batzuetan ere abesten da. Gure eskualdeko herri batzuk ikaragarri hazi dira azken urteotan, eta ezin egun bakarrean etxe guztietara joan. Berangoko Otxandategi taldeak, esaterako,



Goian, Itxas-Argia taldea (2003); behean, Lauaxeta euskaltegiko lagunak (2003)



3an eta 4an kantatzen du aspaldidanik, eta hala ere ezin dira leku guztietara ailegatu.

Plentziako Txikitero Elkartaren kasua bereziagoa da. Bategaz konformatu ez, eta sei herritan kantatzen dute. Otsailaren 4an Urduliz, Sopelana eta Barrikara joaten dira

diarazi eta, momentuz, bizimodu modernoak eskaintzen dizkigun erosotasunek ere ez dute akabatu. Lehiaketak antolatzea bezalako ekimenak laguntza ederra dira horretarako, jakina. Bestalde, Agate Deunaren koplak zaharrak abestea, tradizioak

«Uribekostarrok ondo jakin dugu aspaldidaniko ohiturari eusten»

eta Sean Gorliz, Lemoiz eta Plentziara. Jasotako diru guztia Barrikako zahar egoitzari ematen diote, Luis Oliva elkar-teko kideak azaldu digunez. Dagoeneko 33 urte daroetz zeregin horretan.

Zelan edo halan, uribekostarrok oso aspaldidanik datorren ohiturari eusten jakin dugu. Frankismoak ere ez zuen gel-

jarrai dezan ez eze, talde batzuen ekonomia sendotzen ere laguntzen du. Dirua -edo jatekoa, edo...- eskatzea abestea bezain ohitura errotua da. Abestien berbek eurek ere, Agate Deunagaz gogoratu ostean, berehala joaten dira harira: “*Etxeko andra, andra zabala / etxe oneko alaba / bidean gatoz ondo jakinik / esku zabala zarala*”.

Agate Deuna, torturatua eta kixkalia

Agate Deuna, iturri gehienen arabera, Katanian jaio zen 230 urtean, baina Palermok ere aldarrikatu izan du martiria bertan jaioa zela. Behintzat, zalantzarik ez dago siziliarra zela. Zorte onekoa ere bai. Neska ederra izan zen, eta familia onekoa gainera. Kristaua, jakina.

Dezio enperadoreak kristauen aurkako jazarpena agindu zuela baliaturik, Kintianus gobernadorea Agategaz oheratzen ahalegindu zen,

«Birjintasunari eutsi gura izatearren bularrak ebaki zizkioten Agate Deunari»

baina neskak erabakita zeukan bizitza osoan birjina izango zela. Gobernadoreak ez zuen etsi, eta Agate prostituzio etxe batera bidali zuen, han fedea albora utzi eta haragiaren atzaparretan jausiko zelakoan. Ezin. Agatek bereari eutsi zion.

Orduan, gobernadoreak neskak torturatzeko agindu zuen, eta besteek bularrak ebaki zizkioten. Kondairak dio gau hartan Kepa Deuna agertu zitzaiola Agateri, eta zauriak sendatu zizkiola. Biharamunean, gobernadoreak, haserre bizian, Agate sutara botatzeko agindu zuen. 251. urteko otsailaren 5a zen, eta hantxe hil zen urtero gogora ekartzen dugun martiri siziliarra.



Bidezabaletik gora

Aitor Galbarriartu

Argazkian *hegan egiten* ikus daitekeen itsasontziak badu bere historia. Euskalduna ontziolan egin zen lehengoa izan zen, 1902an. *Portu* dauka izena eta *ganguil* motakoa dela jakin dugu. Ontzi hauek dragek itsasadarreko hondoetatik ateratako zaborra jaso eta itsaso zabalera eroaten zuten. *Portu*, gaur egun, Bilboko Itsas Museoaren kanpo aldean zaharberritzen dabilta. Luzaroan urpean egon eta gero, handik atera eta argazkiak erakusten duen moduan eroan zuten Bilbora.



LUTXANA, 2001

[berbetan]

Bilbon jaio zen, baina txiker-txikerra zenetik Algortan igarotzen zituen udak; hamazazpi urte bete ezkeroztik bizileku finkotzat dauka Getxoko auzo hori, eta dagoeneko bizitzaren heren bi egin ditu bertan (zeuek kalkulatu edadea, gogorik badaukazue). Margarita Uria zuzenbidean lizentziatua da, eta abokatu lez egin zuen behar 1975etik 1980ra. Ondoren, hainbat kargu publiko eduki ditu, eta gaur egun EAJk Madrilgo Kongresuan dauzkan zazpi diputatuetakoa bat da. Honezkero hirugarren legegintzaldia dauka zeregin horretan. Martitzenetik egunera egoten da Madrilén, beharrean buru-belarri, dioskunez, eta gainerako lanegunak Bilboko Sabin Etxean ematen ditu, Espainiako hiriburuan esan eta egin beharrekoak prestatzen. La Plaza tabernan elkartu gara beragaz, urte askoan kafesnea hartu duen leku berean hain zuzen.

Margarita Uria

Ogibidez diputatu

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

—Madrilen diputatua. Arrotzegi sentitzen zara?

—Ez. Egoera desberdina da hemengoagaz konparatuta, eten barik zeure burua justifikatzen egon behar duzu, baina ez dut uste bereziki oldarkorra edo gatazkatsua denik. Gizabidez ere egin daiteke aurrera. —Hau zure hirugarren legegintzaldia da; bederatzi urte dagoeneko. Denbora horretan gazuak aldatu egin dira, ezta?

—Legegintzaldi guztiak desberdinak izan dira. Lehenengoa gobernu sozialista kendu eta PPkoa jarri zenekoa izan zen; ordu-rako igartzen zitzaizkien harropuzkeria zantzu batzuk, baina ez zeukaten gehiengo absolutua, eta horrek jarrerak leuntzen ditu beti ere, besteen botoak behar zituzten heinean. Gehiengo absolutuaren legegintzaldia, berriz, ikaragarria izan zen gure ikuspuntutik. Bagenekien ahots etiko bat eduki genezakeela, baina aktetan geratzeko baino ez zuela balio. Duintasunez jardun genuen, eta poetak zioen bezala, beti

edukiko dugu berba. Eta legegintzaldi honetan alderdi sozialista gobernuan egotearen zelanbaiteko ezustea eduki dugu; berriz ere, hauek ez daukate gehiengo absolutua, eta horregatik beraiek baino ezkeragokoa den alderdi batez eta alderdi nazionalista batez batera egin behar dituzte gauzak. Horrek beste egoera politiko bat sortzen du, interesgarriagoa. —Beti edukiko dugula berba esan duzu.

“Kongresuko Euskal Taldea, Errepublika garaitik, ondo hartua da Madrilén”

EAJko diputatu batek, Madrilgo parlamentuan, berba erabiltzea baino ezer gehiago egin dezake? —Bai, uste dut hiru legegintzaldi hauetan zehar, eta gezurra eman badezake ere, zeozer lortu dugula. Gatzagoa da gehiengoak absolutuak direnean, baina duintasunez eta koherentziaz egindako beharra ez da berehalako emaitzengatik bakarrik neur-

tzen; zeozer geratzen da hor, eta denborak esango du zeintzuk izan ziren jarrerak, eta zein gure alderdiaren jokabidea hainbat gairi dagokionez: alderdien legea, edo gartzela-zigorrek osorik betearazteko egindako aldaketak, edo presoei EHUn ikastea galaraztea.

—Bederatzi urte hauetan, edozelan, EAJren eta *Madril* esango diogun zer horren (alderdiak, gobernua, komunika-

bideak...) arteko harremana sano garratzu da... Zuk igarri egiten duzu? —Begitantzen zait egoera benetan dena baino askoz latzago ikusten dela, komunikabideek ematen duten irudiagatik hain zuzen. Kongresuko Euskal Taldea, ez gu baizik eta gu baino lehenago diputatu izan direnak ere, ondo hartua izaten da Madrilén; prestakuntza egokia eta gauzak



egiteko ganora daukan jendetzat gauzkate. Eta hala da Errepublikara garaitik. Beste kontu bat da gero etenbako gatazka dagoela “saldo” gura izatea. Dena dela, harremanak hobetu daitezke, noski.

—Zelakoa da Kongresuko pasabideetako giroa, telebistan ikusten ez den hori?

—Denbora luzea ematen dugu elkarregaz, eta gainera diputatu gehienok ez gara madrildarrak. Azkenean, harreman pertsonalak sortzen dira, eta egia esan alderdi guztietan dago jende zintzoa eta argia.

“Beti esan dut EAJ eskumako alderditzat jotzea ez dela zuzen-zuzena”

Jakina, badaude joerak. Niretzat, normala denez, errazagoa da ezkerrean joera daukanakaz ondo konpontzea, baina PPn ere jende jatorra dagola esan behar dut.

—Bitxia da EAJko nonork ezkerrekoakaz hobeto konpontzea normala dela esatea...

—Nik beti esan dut EAJ eskumako alderditzat jotzea ez dela zuzen-zuzena. Ezkerrearen ideia gizarte-politika aurrerakoiari lotzen bazaio, gure alderdia ez da sekulan inoren atzetik joan horri dagokionez. Are gehiago: Ezker Batuagaz batera Eusko Jaurlaritzan gaudenetik ez da desberdintza

“Batasunak bere botoak banatzeak ez ditu EAJren asmoak aldarazten”

sun handirik egon gizarte-politiketan, lehen egiten zirenakaz konparatuta. Nik neuk, gainera, esatea zilegi bazait -ez dakit nire alderdiko buruek onartuko didaten- beti eduki dut neure burua alderdiko hegal ezkertiarreneko kideatzat. Eta are ezkertiaragoak diren jarreretatik etorria naiz. Uste dut gizarte-politika aurrerakoiaren eremuan EAJ ez dela eskumako alderdia, idea hori zabaldu gura den arren. —Ibarretxe Plana izenaz ezagutzen den hori zeresan ugari sortzen dabil. Besteak beste, esan egin da Eusko Legebiltzarreko

bozketaren emaitzak hankaz gora ipini dituela EAJren asmoak, hark ez zuelako uste baieztatzeko garaituko zuenik. Azken batean, ezbehar txiki bat izan dela EAJrentzat...

—Ni eztabadian egon nintzen eta uste dut zelanbaiteko ezustea izan zela. Alderdiko presidentearengan eta lehendakariarengan igarri nuen behintzat. Baina ez dut uste Batasunak bere botoak banatzeak EAJren asmoak aldarazten dituenik. Bat-bateko erreakzio bat egon zen, ez zelako pentsa-

tzen gerta zitekeenik, baina horrek ez du aldatzen Ibarretxe Plana deitu den hori (hau da, Euskadira estatuto politiko berrirako proposamena) egoera guztietan defendatzeko dugun asmoa. Planaren inguruko eztabaida ahalik eta sakonen izatea gura dugu. Zenbat eta berba gehiago egin berataz, hobe. Eta ez planaz jeneralean, baizik eta beraren edukiez, egiten dituen proposamen zehatzez, dauzkan helburuez... Hauteskundearen arabera ikuspegia, zentzu horretan, murriztegia begitantzen zait. Ez dut uste hain sakonera ailegatu gura duen estrategia -Euskadi

zioak eta hizkuntzak ezagutuak diren Europa baten alde, giza eskubide hitzarmen zabalago batez. Azkenean, nazionalitateak egongo dira Konstituzioan, baina ez guri gustatuko litzaigukeen heinean. Edozelan, gure alderdiak aztertu egin du Konstituzio honek dakarrena orain daukaguna baino hobea ala okerragoa den (eta hobea da), eta estatutu politiko berrirako proposamenaren bitartez lortu gura ditugun autogobernarako aukerak eragozten dituen (eta ez dituzte eragozten). Izan ere, Europako Konstituzioak estatu bakoitzaren esku uzten du bere barne-harremanak zelakoak izan behar diren erabakitzea. Gainera, pentsatu izan dugu ezezkia emanek Europako zenbait alderdi oso atzerakoiakaz -batzuk ia eskumako muturrekoak- bat egingo genukeela. Konstituzio hau aurrera egitea dela uste dugu, beharbada guk gura genukeen moduan ez den arren. Bestetik, gure tradizio historikoak baieztatu erosten gaitu. Gauza onak gauza txarrak baino gehiago direla iritzi diogu, eta horregatik agertuko gara baieztatzeko alde.

—Kaletar arruntek Diputatuen Kongresuak daukaten irudia aulkien erdia baino gehiago erdi hutsik ageri direneko hori da...

—Gutxi daudenean, ni egoten naiz, e? (Barre). Nik uste dut egon behar dela. PSOEko kide batek zioenez, jendeak hil eta guzti egin lezake zerrendetan hautagai joateko; beraz, gero jesarlekuan egon behar da. Hala ere, parlamentuko jardunaren jarraipena ederto egin daiteke norberaren bulegotik, monitorearen bitartez. Jendeak lan egiten du Kongresuan, eta lan asko gainera. Nik gutxi ikusten ditut alperkerietan.

—Bide batez: zu Kongresuko hizlarien agerlekuan egon zara behin baino gehiagotan. Zer sentitzen da lehenengo aldian?

—Egia esan, hasieran apur bat kikiltzen zara, bai. m

888 TXISTE

Kike Amorriz

eskaerak

katalogoaren eskaera orria
943 37 15 45 • denda@argia.com
Ohiko salmenta puntuetan

ARGIA
• LEBURUAK •



1977, Algorta jaietan

Eskarmentu handiko argazkilaria da Fede Merino, bide luzea egin dauka irudigintzan. Bere lan profesionalaz gain eskualdeko egunerokotasuna jasotzen duten milaka argazki egin ditu. Bada, trantsizio deitu izan zen garai nahasi haietan Algortako jaiak zertan ziren jasotzen ahalegindu zen Merino. Franco hil osteko lehenengo jaiak ziren, askatasun gosea handia zen, politikak bazterrak harrotzen zituen... Giro hori ederto islatzen dute Federen argazki hauek.

Argazkiak: **Fede Merino**

www.fcmerino.com










Fede Merino > argazkilaria

“Caro Barojaren jarraitzailea izan naiz”



Fede Merinoren argazki bilduma www.fcmerino.com orrialdean ikus daiteke

“1977 Jaietan” erakusketa ipini du Fede Merino argazkilariak (Reinosa, 1943) Algortako Satistegi tabernan. Garai nahasiak ziren, aldaketa handiak bizi zituen gizarteak. Julio Caro Barojaren proposamenari jarraituz Algortako jaigiroan murgildu zen Merino. 26 urtegaraz etorri zen Algortara bizitzera, eta 10 urte daroaz Berangon. Denbora luzean Arriaga antzokirako egin izan du lan, orain Euskaldunarako dihardu.

—Erakusketaren testuak dioenez, Julio Caro Barojaren eta zure berbetan: “memoria galdu ez zedin” egin zenituen argazkiak. —Hori zen asmoa: lekuko izatea. Momentu oso garrantzitsu baten dokumentu grafikoa egitea: dena zen berria, geu ere estreinatzen ginen. 1977a: ikurrina legez kanpo zegoen, Alderdi Komunista 76ko abenduan legez-tatu zuten, “bronka” itzela zegoen, “kalearen jabe” zenaren garaiak ziren, Fragarenak... Geure burua definitzen genbiltzan; zer, zelan eta zelakoak izan gura genuen igartzen. Urte hartan ere Pertur hil zuten eta manifestazio handi bat egin zen Algortan. 1977an itzelez-

ko manifestazio bi egin ziren, nik uste Algortan inoiz egin diren manifestaziorik handienak: bata, ikurrinaren legez-tatzearen aldekoa; bestea, Perturren hilketaren aurka-koa. Gainera, jaiak ziren. Jaiak beraien egitur-aran aldarrikapen politikoak sartu zituzten; erakusketan ondo ikusten da hori.

—Urak bere bidea egin du, aldaketak nabi-riak dira, baina antzekotasunak ere badau-de, esaterako, iaz Portu Zaharreko jaietan ez zuten mezu politikorik ipintzen utzi.

—Aldaketa itzelak egon dira! Gurean jaiak betidanik izan dira salatzaileak. Politikoak ez dira ondo konpontzen jai batzordeakaz,

orduan ere ez. Garai hartan Getxok ez zeu-kan udal demokratikorik, ez zeukaten babes sozialik ezta politikorik ere. Egun haietan askatasun olde handia sentitzen zuen jende-ak; hori bai, gero Guardia Zibila zetorren... eta ikurrinak gordin-gordinean irentsi behar zenituen. Orain gauza asko onartu eta legez-tatu dira, baina badude politikoez gustuko ez dituztenak ere. Baina orain horiek zigort-zeko legimitatuta ei daude.

—Ibilbide profesional oparoa izan duzu.

—50 urte daroadaz argazkilari. Julio Caro Barojak pozoitu egin nau, zentzu onean, baina pozoitu. Bere eraginpean egin nituen 70. hamarkadan Bilboren gaineko lana, itsa-

«Eguneroko bizimoduaren gaia oso garrantzitsua izan da nire argazkilari ibilbidean»

sadarren ingurukoa, arrantzaleena, eguneroko bizitzaren gainekoa... Eguneroko bizimo- duaren gaia oso garrantzitsua izan da nire ibilbide profesionalean, On Juliok zionenez: “ez delako egunerokotasuna ia inoiz kazeta-ritzaren helburua”. XX. mendeko historia mundu osoko egunkarien azaleko argazkia- kaz eta argazki-oinakaz idatz daiteke, baina historia hori ez litzateke osoa izango, egune- roko bizimodua faltako litzateke. Eta On Juliok esan zuen legez: “hori azaleko argazkia bezain garrantzitsua da”. Beste behin, ez dut sekula ahaztuko: “Izan zaitez libreagoa”, aholku malapartatutzat daukat, agian sor- menagatik esango zidan. Barojaren jarraitzai- le eta ikasle izan naiz, baina beste batzuen eragina ere izan dut: Oteiza, Txillida... Antzerkia ere interesatu zait, baita arkitektu- ra eta pintura ere. Arriagarako lan egin dut baina orrialde hori itxi dut: argazki konben- tzionalak egitea eskatu zidan behin zuzenda- ritzak. Nik ez dut inoiz argazkilaritza kon- bentzionala egin. Bolsoi-ko Balletari, Placido Domingori, Montserrat Caballeti... eginda- ko argazkiak ezin du ohikoa izan, ezohikoa, aparta behar du izan, euren maila berekoa. m

zineeskola

Oskar Fernandez

Zinema eta hizkuntza

Inoiz komentatu izan dugu zutabetxo honetan filmak nola ikusi behar ditugun, jatorrizko hizkuntzan azpтитuloekin edo bikoiztuta. Oraingo honetan, betko legez, bikoiztuaren alde joko dugu. Euskal Herriko pantailetara heltzen zaizkigun filmak ia ehunetik ehunean erderaz daude. Gaur egun, zoritzarrez, filmak euskaraz egotea salbuespena da. Gutxitan, oso oso gutxitan, zine-areto komertzialetan filmen bat proiektatzen da euskaraz. Irakaskuntzari begira bi entresa desberdinek, Tinko-k eta Irudi Bizia, askotan eskeintzen dizkiete filmak euskaratuta ikastetxei, ikasleek film onez bertoko hizkuntzaz goza dezaten. Benetan aipagarria da, Tinko entpresak egiten duen lan handia eremu korapilatsu eta sail honetan. Guk ondo baino hobeto dakigu hori, gure haurtzaroa gogoratu baino ez dugu egin behar; izan ere, ume guztiek film bat ikusi ondoren istorioak islatzen dituen jarrerak, baloreak eta ereduak bereganatzen dituzte. Jakina, bakoitzak bere nortasunaren arabera. Filman agertzen diren esamoldeak, hitzak eta ekintza desberdinak jolasen bidez antzesten dituzte. Eta hau guztia filmak zabaltzen duen hizkuntzaz egingo dute, gure kasuan gaztelaniaz. Horrela, zinemak erdaraz irakatsi eta formatzen du, gazteei eragiteko ahalmen hori ez da euskaraz egiten, ez zaio euskarari aukerarik ematen eta aukera ezin hobeaz galtzen dugu.

Gure euskal umeek eta gazteek telebistako kanalen artean, hamar bat edo gehiago, bat baino ez daukate euskaraz. Irratiko ihunka uhinen artean, laupabost irrati euskaldun daude eta milaka eta milaka filmen artean euskaraz eginda edo euskaratuta daudenak nahiko gutxi dira. 4

Zinegoak 05

Bilboko **gay-lesbo-trans** zinema jaialdiak aurten ere arrakastagaz bajatu du oihala

Zinegoak 05 zinemaldia, Bilboko gay-lesbo-trans zinema jaialdiaren bigarren edizioa, pasadan urtarrilean egin zen eta aurten ere arrakasta handia eduki du. Iaz egin zen lehenengo aldiz zinema jaialdia eta orduan 3.000 bat ikusle hurreratu ziren gay-lesbo-trans inguruko gaiak jorratzen dituzten filmak ikustera. Aurten ikusle kopuruak gora egin du 4.500 inguru izan dira, herrietako emanaldietara hurbildu direnak kontuan hartu barik.

Zinegoak-en hasierako helburua hurrengo zen: zinemaren bitartez gay-lesbo-trans fenomenoaren normalkuntza bul-tzatzea. Iaz Bilbon baino ez ziren egin emanaldiak, baina normalkuntzaren bidea herrietara ere hedatu gura izan dute aurten. Gure eskualdean ere Zinegoak-eko fil-

«Datorren urtean emanaldiak herri gehiagotan egitea da asmoa»

mak ikusteko aukera egon da: Getxon, Berangon eta Leioan. Datorren urteari begira, Zinegoak-eko zuzendari Roberto Castonek azaldu digunez: *«emanaldiak herri gehiagotan eskaintzea da gure asmoa, eta ahal izanez gero, Donostian eta Gasteizen ere»*. Bilborockeko areto “goxo” xi-



Informazio gehiago: www.zinegoak.com

ki geratu ei zaie eta agian handiago bat bilatuko dute. Beste berrikuntzen artean, aipatzekoa da jaialdiko ohorezko saria jaso duten Alex de la Iglesia eta Ventura Pons zuzendarien atzera begirako emanaldiak egingo dituztela. Parte hartu duten zuzendari eta aktoreek *“zinemaldi umila baina zintzoa”* dela aitortu diotela diosku Castonek eta pozik dagoela *“apurka-apurka zinemaldia hazten doala ikusita”*. 3

Ez galdu > “Bombom, el perro”

• **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** otsailak 16, eguaztena • **Ordua:** 19:30 • **Zine Kluba**



Carlos Sorin zuzendaria

Film honen historia Carlos Sorin-ek, zuzendariak, eduki zuen ideia batean oinarritzen da. Zuzendariak berak gidoia idazten eta garatzen parte hartu du. Film interesgarri eta erakargarri honek Donostiako Nazioarteko Zinemaldian, 2004koan, FIPRESCI erakundeak ematen duen saria irabazi zuen eta harrera ona izan zuen. Istorio hau Carlos Sorin Argentinako zuzendariak egin duen bere laugarren film luzea da. Aurrekoak *La película del rey* (1986), *Eterna sonrisa* (1989) eta *Historias mínimas* (2002) izan dira. *Historias mínimas*-ek ere Donostiako Nazioarteko Zinemaldian parte hartu zuen, eta nahiko arrakastatsua izan zen. Filmazioa Argentinako Patagonian bertan grabatu zen. Carlos Sorin-ek gizakiak dituen arazo larriez hitz egiten digu baita pertsonek dituzten ezaugarri psikologikoez ere.

Kantuketan

Musikari itzelak ekariko ditu Getxora berriro ere Kantuketan musika zikloak **otsailean**



Argazkian, Kauta taldeko kidek

Kantuketan musika zikloaren helburu nagusiak dira euskal musikaren ugaritasuna ezagutzera ematea eta euskal talde eta musikaririk onenak batzeko topaleku bihurtzea. Asmo horiek betetzeko Euskara Zerbitzuak Getxora hurreratu du musika zikloa. Musika estilo desberdinek osatzen dute egitaraua: reggae, pop, folk, rock.... denetarik. Aipatzekoa da aurten Kantuketan-ek *“Mundu osotik Euskal Herri osorako”* egitasmoa ipini duela martxan: nazioarteko 5 artista entzutetsuren elkarlanean onairritzen da eta horregaz hasiko da zikloa. Multimedia ikuskizun bategaz gozatzeko aukera ere egongo da, eta gazteen-

tzako doinurik ez da faltako. Amaitzeko, azken txanpan Imanol zenari omenaldia egingo dio Kantuketan zikloak. 3

EMANALDIAK

- **Kepa Junkera, Pier P. Berzaitz, Maddi Oihenart, Sylvian Luc, Lokua Kanza eta Kevyan Chemirani.** Getxo Antzokia. Otsailak 6, domeka. 19:00. 10 euro.
- **Ohe handi bat.** Logela multimedia. Getxo Antzokia. Otsailak 11, barikua. 20:00.
- **Sagarroi, Kerobia eta Kauta** Portu Zaharra. Otsailak 12, zapatua. 20:00.
- **Bolona-molona. Imanol in memoriam.** Getxo Antzokia. Otsailak 13, domeka. 19:00. 6 euro.

diskoak

Bolona-molona
Imanol
Elkar



Imanol Larzabalen azken desioetako bat behaska kantuen disko bat grabatzea izan zen, eta horretan zebilen heriotza heldu zitzaionean, iazko ekainean. Asmoa bertan behera gera zitekeen, baina proiektuak aurrera egin zuen. Zenbait kantarik amariara fina eman diote disko honi, besteak beste, Txema Garces, Antton Valverde, Niko Etxart eta Iñaki Eizmendi.

Out of nothing
Embrace
Sony



Azalpen bat egitea komeni da: Coldplay taldeak pop epiko eta melodramatiko horregaz arrakasta izan aurretik, Embrace-koek bazeramatzaten urteak estilo hori egiten, baina horrenbeste saldu barik. Talde bien arteko antzekotasun musikalak nabariak dira. Disko honetan fundamentuzko abestiak daude, poliki hasten diren horietakoak eta segunduak aurrera egin ahalaz puzten doazenak.

Antics
Interpol
Virgin



2002ko lehenengo diskoan, Interpol-en doinuek nahiko antza zeukaten 80ko talde ilunakaz (Joy Division, esaterako); lan berri honetan, ordea, New Yorkeko laukoteak aurrerapauso bat eman du. Orain hobeto erabiltzen dituzte euren musika-tresnak, baina hobekuntza askoz nabariagoa da konposizioan: disko hau aurrekoa baino askoz burutsuagoa da.

Flyin’ Freak >

Bira bete-betean



It’s the time lehenengo diskoaren aurkezpen biran buru belarri dabilta Flyin’ Freak taldekoak urtarila ezkerotik. Bartzelona, Granada, Sevilla, Coruña, Santander,

Kordoba... asko dira egingo dituzten kontzertuak. Euskal Herrian maiatzean jardungo dute: Gasteiz (maiatzak 7, Kinvara aretoa), Donostia (maiatzak 14, Rock Star), eta Bilbo (maiatzak 28, Kafe Antzokia). Pasadan urteko uda aldean kaleratu zuten heavy metal doinuez osatutako diskoa; taldea, ostera, 2002an sortu zuten Idibihotzeko Alvaro Alonsok, Gorka eta Mikel Bizarrek eta Noraezeaneko Pedro Herrosillak, eta ostean German Ulacia teklaturatu zitzairen.

Agurra > Akelarre

Gauean ikusi ditut malko bi... Sua amaturuta dago, akerrak ez du plaza gehiagorik egingo. 70. hamarkadan Sorluzeko gazte batzuek sortutako *Los Mansos* taldetik jaiotako Akelarre taldeak agur esan digu. 30 urte eta 5.000 kontzertu baino gehiago, 15 disko... Zein plazatan ez dira egon? Nork ez daki nor den Magali? Zenbat kontzertu afari baten truke? Baina, plazak, edo hobeto esanda, plaza gizon eta emakumeak aldatu egin dira, plazetan gaur ez da giro, eta rock eta folk doinuak maisuki nahastu dituen taldeak jotzeari uztea erabaki du. Oialuma aretoan eman zuten azken kontzertua eta opari bezala han gertatutakoa DVDean batuko dute.

poemakutunak

Egilea: Xabier Montoia
Nondik hartua: *Anfetamiña* (Susa, 1983)

Batzuentzat

Batzuentzat
Jesukristo gurutzera
(lapurren artean)
igo zenean,
hasten da historia.
Beste batzuentzat, aldiz,
Leninek —txapela kenduz—
«Botere osoa sovieterako»
deiadar egin zuenean,
Finlandiako geltokian.
Niretzat
David Bowiek ilea moztu zuen
egunean.



GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gutxi
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

888 txiste

Kike Amonarrizek *Txorakikeriak* trilogiari jarraiki laugarren txiste liburua kaleratu du

Txorakikeriak bildumatxoaren 4. atala da 888 *Txiste* liburua. Kike Amonarrizek 1998an hasitako lanaren jarraipena edo ale berria da oraingoan Literaturaren txoko hone-tara dakarkizuegun hau. Kike Amonarriz bada nor euskal umorearen izarpean, eta euskaldunoi barrea eragiten benetan trebea da tolosarra. Aurreko hiru *Txorakikeriak* liburuetan jaso barik utzitako 888 txistek osatzen dute iazko urte amaieran plazaratu zuen liburu hau.

Argia astekariaren orrialdeetan umorea eskaintzen du Amonarrizek 1982tik, *Txiskola* telebistako umore saio arrakastatsuen aurkezle eta gidari izan zen, eta 1998an umorez

«Lau urteko etenaren ostean 888 txiste berri dakartza Amonarrizek»

betetako, txisteakaz eta hitz-jokoakaz osatutako eta pasadizo barregarriakaz atontutako *Txorakikeriak* liburua kaleratu zuen, hasiera hartan Xabier Telleriaren laguntzagaz.

1999an *Txorakikeriak 2* plazaratu zuen eta honek ere ez zuen umore mota bat ere faltan eduki. Hurrengo urtean, *Txorakikeriak 3* liburu trilogiari amaiera emango zion azken aleak eragin zigun barrea. Ostean, lau urteko etenaldiaren ostean, 888 *Txiste* dakar-



Kike Amonarriz txiste kontalaria eta soziolinguista

tza besapean Kike Amonarrizek. Algara eta irribarrea tartekatuko ditu irakurleak 468 orrialdeak leidu ahala, kolore askotako umorea, denetariko txistek: bizitakoak, entzundakoak, bertokoak, euskaldunek urrunekoen gainean egindakoak, urrunekoen euskaldunon inguruan esandakoak... Azken finean, euskal umorea zelan edo halan batzen duen liburua da 888 *Txiste*, *Txorakikeriak 4*. Komunikazio Biziagoa editorialak argitaratu du eta 12 euroko prezioan dago salgai. m

liburuak



Ortziren hortza
Josetxo Orueta
Pamiela

Inbaditzaile ankerrek torturatutako lurra, erasotzaileen aurrean burua makurtzen ez duen herria eta Mikelot izeneko Erronkariko mutil baten abentura korapilatsuak Orreagako gerran. Horra hor idazle bilbotar honek kontatzen dizkigun istorioak, Josean Sagastizabalen itzulpenagaz.



Belarraren ahoa
Harkaitz Cano
Alberdania

Demagun Hitler-ek ez zuela gerra galdu, Europa osoaz jabetu zela eta itsasoz doala Manhattan-en jabe egitera. Demagun Askatasunaren estatua puskatan daramaten itsasontzian polizoi bat doala Ameriketara. Istorio bi horiek bat egiten duten unetik aurrera askatasun pertsonalaren alegoria ederra egiten du Canok.

Erromo eskubaloi taldea

Ekintzak gogotik **zilarrezko ezteiak** ospatzeko, **25 urte** ez dira egunero betetzen



Erromo eskubaloi klubeko taldeetako bat

Pedro Aristegi eskolako guraso talde batek eskubaloi talde bat sortu zuen 1980an Erromon. Pedro Aristegi izena eman zioten, baina klub moduan eratu zenean Erromo eskubaloi taldea izena hartu zuen. 25 urte pasatu dira ordutik, eta taldeak inoiz baino indar handiagoagaz dihardu. Gaur egun, eskubaloi eskola dauka eta 60 bat haur dabil-tza bertan. Kimu mailako taldeak daude, kadete mailan emakumezko zein gizonezko taldeek dihardute, gazte mailan ere badabiltza Erromoko eskubaloiariak, seniorretan emakumeen talde bat dago, eta 2. maila nazional-lean gizonezko taldeak jokutzen du. Erromo

eskubaloi taldeak, denetara, 210 bat jokalaria dauzka. Taldeko lehendakari Paco Bartolomek azaldu digun legez: *“birritan irabazi du Erromok Kopa, iaz 2. nazionalera igotzea lortu genuen, eta kadete mailan Bizkaiko txapelaldun izan gara”*. Hogei urte dira Paco Bartolome taldeko lehendakari dela eta bere ahotik dakigu 25. urteurrena ospatzeko ekintza asko pres-tatu dituztela: *“Euskadi-Argentina partida antolatu genuen (27-27), Mini eskubaloi txapelketa egingo dugu seguruenik Aste Santuan, jokalaria ohiak omenduko ditugu, 25 urte hauetako argazki erakusketa prestatuko dugu, etab. luze bat...”*. Zorionak! m

Andra Marik igerilekua edukiko du

Legegintzaldi honetako Plan Estrategikoaren barruan, Getxoko Udalak Andra Mariko kiroldegian igerilekua eraikitzea aurreikusi du. Gauzak okertzen ez badira Andra Mariko igerilekuak datorren urterako, hau da, 2006rako zabalduko litzuke ateak eta igerilekua eraikitzeak guztira 2 milioi euroko kostua edukiko du, gutxi gora-behera. 2004an lan horretarako 84.000 euro bideratu ei ziren, aurrean, milioi 1 euro zuzenduko dira zeregin horretarako, eta datorren urtean 900.000 bat euro. Eskaintza hau aurrera eramatea Getxoko Udalaren 2004-2007 legegintzaldiko ardatz estrategikoen barruan dago, eskaintako kirol zerbitzuak handitzea eta auzoetara hurbiltzea aurreikusten duen helburuaren barnean hain zuzen.

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350 M²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
SERVITEC

Lacofris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZU-NA
- 3 HILABETETKO GARAN-TIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBIT-

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA



T: 430

Sarrikobaso 15





Alkaxola tritatuak txerri urdai, garaiko onddo, zigalako, arbandi bihurtu eta udazkeneko zukuarekin.
Tubai jatetxea

Euskal
produktuak
gure sukaldean

Urtarrilaren 23tik aurrera
egunero fitxa bat **DOAN BERRIAREKIN**



Jantzi mantala eta hasi sukaldean!

Laguntzaileak:

FAGOR



Elkarrizketak Puntu Aldekoa
Elkarrizketak Puntu Aldekoa

Euskaldunok behar dugun

berria



50 produktu 50 jatetxe

Fagollaga jatetxea, Zuberoa jatetxea, Mugaritz jatetxea, Akelarre jatetxea, Tubai jatetxea, Etxebarri enategia, Hartze jatetxea, Argomaniz Paradores, Borda Beni jatetxea, Cumbi jatetxea, Les Pyrénées jatetxea, Portakón jatetxea, Fronton jatetxea, Astelena jatetxea, Casa Nicolasa jatetxea, Aloña Berri jatetxea, Martinez jatetxea, Etxanobe jatetxea, Casa Manolo jatetxea, Elkano jatetxea, Kabia jatetxea, Izkiña jatetxea, Jokin jatetxea, Urepel jatetxea, Txoko jatetxea, Leioako Ostalaritza Eskola, Goizeko Kabi jatetxea, Don Pablo jatetxea, Zelai Zabai jatetxea, Etxeberri jatetxea, Pierre Oteiza jatetxea, La Cuchara de San Telmo jatetxea, Casa Julian jatetxea, Etxelarko fonda, Moraso jatetxea, Aratz jatetxea, La Boule jatetxea, Ramon Roteta jatetxea, Baserri jatetxea, Hotel Europa jatetxea, Elchepea hotela, Euskal Biskotx erakustokia, Bakea jatetxea, Las Torres ostatu-jatetxea, Alhambra jatetxea, Dolarea jatetxea, Angelita Alfaro, Zortziko jatetxea, Labakoa jatetxea.

Esakere > “Eiren buru erretoko egur bille”



Gorka Vazquez

Gure bizitzeko urte asko pasaten doguz eskolatute, baia elei pentsa lar zuhur urteten dogunik, inusentekeri ederrak egiten doguz eta, batzuten barre egiteko direzenak, parrandan ibili ta gero portal bateko marmolen lo lotute lez, edo bapere broman hartuteko ez direzenak, tragutxu batzuk edan ta gero bolante hartu eta Fittipaldikerik egiten haste lez. Berba biten esateko, geure buru erretoko egurre batuten dogu sarri.

Esakera hau R.M. Azkuek baturiko da, eta beran “Euskalerriaren Yakintza” behar handin topako dozue.


Gure **berbakere** 52

Berba jator batzuk (XI)

Testua: **Xabi Bilbao**

Berbakere 43n eta 48n lez, hemen gure izenondo edo adjektibo batzuk ikusten segiduko dogu, gure eskualdeko euskeran gauzak eta pertsonak **ZELAU(K) -Zelako(ak)-** direzen esateko erabilten direzenak.

- **laxu**: estu ez dauena. Sarri erabilten da erropen edo troñun (korapilon) ganen berba egiteran.
—*Laxu darozuz frákak beti, Kantinflas lez. Egun baten yáusi ingo datzuz jénen áurren!*
—*Eztatu ondo amárta txakurre: laxu itxi dotzo kordela, ta hálán ein dotzo óspa.*
- **motz**: polite (politxe) ez dana.
—*Inauguraziño handi ein dautze plaza barriri, baia ondo motza lotu da, ba.*
- **nagósi, nagúsi**: zaharrena, urte gehien dekozena.
—*Anaje (anai) nagósi etor daku Amériketik eta itzelezko afari eingo dogu ospátuteko.*
Sarri erabilten da, izen moduan, “edadeko jente” bai eta “jefe” esateko.
—*Nagósik zapátu bátzuten bere zabaldu gúre dau negózio baia gu ezkauz prest.*
- **nontzebarri**: beran kontuk eta garikonak jakin guren eta kontaten ibiltan dana.
—*Inagárikik imiñi períodikun? Zetako? Horrerí esátsezu ta kitu! Nontzebarri hutse da ta!*
- **hoba**: ona baino gehiau dana (bat. hobe).
—*Oste kéntzeko onain redbull edan? Hoba zendun atzo gintonic bateaz konfórma!*
—*Herriko gauzan gánen infórmateko zer irákurri? UK dekozu hor! Hobarik eztau!*
- **polite, politxe**: bapere motza ez dana.
—*Oin fábricaen lékun paséo polítsek dekuz, eta hólán konfórma ber (behar)?*



Iñaki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENT-
ZAKO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Tostadak

Inauteriak gainean ditugu eta sasoi honetan ohitura izaten da tostadak jatea. Postre, gosari zein merienda goxoa da eta gainera oso erraz egiten dira tostadak. Hasteko, ipini sutan litro bat esne, bota azukrea eta kanela adar bat. Irakiten duenean basobete koñak gehitu. Bestetik, ogi sikua xerretan zatitu, ontzi batean sartu eta sutan eduki dugun esnearekin estali, zortzi bat orduz. Ondoren tostada bakoitza irabiatutako arrautzetik pasatu eta frijitu. Amaitzeko, nahastu azukrea eta kanela ehotua, eta tostaden gainean bota.

On egin eta formal ibili inauterietan! ^m

osagaiak

ogi sikua • esnea (litro bat) • koñaka • azukrea (15 goilarakada) • kanela



itsaso arana / jolastoki-koa

Ardoa edateko tenperaturak

«Tenperaturak eragin handia dauka ardoa edateko orduan; ardoaren ezaugarriak ere alda ditzake»

- Ardo zuri eta lehorrak 8°-10°tan edan behar dira. Zenbat eta tenperatura altuagoa, gehiago igarriko dugu alkohola; tenperatura baxuagoetan, garraztasuna.


- Ardo zuri gozoak 6°tan gutxi gorabehera edan; tenperatura honetan, espresio gozoa eta frutazkoa nabarmentzen da.

- Ardo gorriak 9° eta 12° bitartean, beltzetik ala zuritik, zeinetik hurren dauden begiratuta.

- Ardo beltz arin eta gazteak 12° eta 16° bitartean euren aroma eta egitura nabarmentzeko.

- Ardo beltz gorpuzdunak 14° eta 17° bitartean euren gorputza hobeto igartzeko.

- Ardo beltz zaharrak 17° eta 18° bitartean, horrela euren bouquet eta espresioa hobeto atzemango ditugu.



Tearen errittoa

Areetara ailegatu da



Argazkian, Helena Escuder Areetako bere denda berrian

Ingelese bostetako tea ezarri zuten, baina “eguneko edozein une da ona tea hartzeko”, azaldu digu Helena Escuder areetarrak. Sara ahizpagaz batera, Árbol de té izeneko denda dotorea zabaldu berri du Areetan. “Gutxi batzuk kontsumitzen duten arren, tearen mundua oraindik aurkitzeke dago”. Txinpartak atera dizkiote 18 metro koadroko lekuari: ehunen bat te eta infusio mota (*English breakfast* delakoa, gorria, berdea, lasaitzekoa...), tearen eritua osatzeko jakiak (txokolate belgikarra, galletak, likoreak, azukreak, eztiak, gozokiak...) eta tea gordetzeko eta prestatzeko beharrezkoa den tresneria (kikarak, teontziak...) pilatzen dira modu txukunean.

Tea taxuz, modu tradizionalen, zelan prestatu behar den ere jakingo dugu Árbol de té dendari esker. Txina, India, Japonia, Hegoafrika eta atzerriko beste hainbat herrialdetatik ekartzen dituzte belar guztiak, inguruan ez ei direlako landatzen. Ehun gramo 3,50 eta 4 euro bitartean dago.

Helenak gomendatu digunez, tea ez da inoiz presaka hartu behar. “Teontzi on bat ere erabili behar da kalitatea, zaporea eta araztasuna bereizteko”. Ez ei dago kafeagaz liskarturik, “baina teak barietate gehiago eskaintzen ditu, eta osasuntsuagoa da”. ^m

ARBOL DE TE
Andres Larrazabal, 3. Areeta
T. 94 602 07 86

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



VIEJO

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Aranza Elzebarria

Odonologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA 94 94 430 76

amesti
obrak.proiektuak

Berrikuntzak
Eraikuntzak

Etebizitzak
Lokalak
Bulegoak
Basagoiti etorb. 56
48.991 Algorta
Tel. 944 915 298
Fax 944 915 299
amesti@ameslur.com

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde
taberna
eguneko menua

Kresaltxu 13
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T: 94 491 02 93



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREETA T. : 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T. : 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta askotarikoak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA t (Abenduak 21 urtarrilak 19) Kirola egin, etxeko lanetan lagundu, hain burugogorra ez izan... Horiek guztiak beteko zenituela zin egin zenuen urte amaieran. Hala ere, urte berri honetan ez dugu aldaketarik atzeman. <i>Ura</i>, gezurretan berriro?	OTSOA t (Urtarrilak 20 otsailak 18) Urte berria uluka hasi duzu <i>Otsa</i>, pozik zabilteza. Baina ondino negu hotza ez da amaitu, negu gorria heltzeaz dago, eta udaberrirako dextente falta da. Ondo gorde indarrak gerorako ere beharko dituzu-eta!	ADARRA t (Otsailak 19 martxoak 20) Uste duzu ingurukoek ez dizutela estimurik, baina maitekiro hurreratzen zaizkizunean ez diezu kasurik egiten. Laztanak hartzen eta eskerrak ematen ikasi beharko zenuke. Bestela ez duzu sekula ezagutuko besteez eman dezaketen goxotasuna.
AITZURRA t (Martxoak 21 apirilak 19) Garai batean hainbestetan gaitzetsi zenituenak egiten zabilteza orain, hainbeste gorrotatu zenituenak orain gogo-ko daukazu. Konturatu al zara? Bada, norbaiti barkamena eskatu behar zenioke, lagun moduan galdu gura ez baduzu behintzat.	HOSTOA t (Apirilak 20 maiatzak 19) Promesa asko egin zenituen urte hasieran, hilabetea joan da geroztik eta bat bera ere ez duzu bete. Agindutako baten bat bete beharko duzu ezta? Ala datorren urterako utziko dituzu?	EGUZKIA t (Maiatzak 20 ekainak 18) Azkenean konturatu zara zein den lagun ona eta zein ez. Edozelan eskerrak eman beharko dizkiezu, urte askotan zure alboan egon dira; eta jaramonik egin ez badiezu ere, ez dira zure ondotik aldendu.
GARIA t (Ekainak 19 uztailak 18) Gauza asko daukazu buruan, proiektu berri asko. Denak ez dira gauzatuko, baina eduki ezazu pazientzia, helduko direnak sustrai sendo eta emakorrak edukiko dituzte-eta. Eutsi goiari! Gaur ereindakoak bihar jasoko dituzulako.	LASTOA t (Uztailak 19 abuztuak 17) Zoro moduan zabilteza azkenaldi honetan. Lurrean baino laino gainean daukazu burua. Urte berriko haizeak ez dizu onik egin. Laster iratzartzen ez bazara gauza asko galduko dituzu. Zenbat eta lehenago munduratu, hobeto!	IRATZEA t (Abuztuak 18 irailak 16) Parranda egiteko gogorik ez zeneukala esan zenuen. Hala ere, praka berriak eta alkondara jantzi eta goizeko ordu txikitari itzuli zinen exera. Ez dago lagun zaharrakaz parranda egitea baino gauza hoberik, ezta!
META t (Irailak 17 urriak 16) Orain arte txingurrien modura egin duzu behar, eta negurako gordetakoak luzaro iraungo ditu. Baina ez da ona besteen gabezi-egoeraz barre egitea. Batek daki, agian nonoiz euren laguntza behar izango duzu.	HAZIA t (Urriak 17 azaroak 15) Urte hasiera aldapan gora egin duzu, gura baino izerdi gehiago botata. Baina Gabonetako betekadak eta gehiegikeriak gairiditzeke eta sasoiari ipintzeko balio izan ditu. Hemendik aurrerako bidea lautada zabaletik egingo duzu, <i>Hazia</i>.	NEGUA t (Azaroak 16 abenduak 20) Orain arteko dena atzean utzi eta bide berriari ekin diozu. Oraindik ez dakizu bidea harrizko, asfaltzoko edota lupetzazkoa izango den, baina barrena ilusioz beteta daramazu. Besterik ezcan, bidaia-lagun asko ezagutuko dituzu.



mungia
oKINdegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamaika beltzune ditu

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2. Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar., zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiak mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1.Esku. Ukatzeko. 2. Gaueko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortzietako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gaualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desagokitasuna. Joaki da.

Soluzioak									
V	A	I	A	V	I	R	I	Z	O
O	W	E	T	E	P	A	I	P	E
D	I	R	A	U	A	V			
V	A	R	A	T	I	Z	O		
V	U	T	A	K	I	Z	I	K	
S	A	Z	E	T	E	G	I	E	
T	O	A	B	I	N	T	R	A	
V	N	E	T	R	A	V	S	A	
K	N	O	Z	I	G	V	O	A	
N	U	G	I	L	A	Z	I	B	

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Oñatiko semea da
- Nafarroa du gogoan bere azken lanak
- Abeslaria ere bada

> Aurrekoaren erantzuna: Aita Santua

> Irabazlea: **Aitor Goikoetxea***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

•Argia astekariaren bihurtu
hilabeteko harpidetza doan



•Freexkue
liburua

www.argia.com



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



ARGAZKIA, AITOR GALBARRIARTU

Algortako koadrila bat San Inazioetan

Sopeloztar batek helarazi digu erretratu eder hau: Aitor Galbarriartuk. Ez daukagu zehatz-mehatz zein urtekoa den jakiterik baina hamar urte baino gehiago badauzkala esan dezakegu. San Inazio jaietako *bajada* egunean egin zuen Aitorrek argazkia. Irudian erraz igarri daitekenez, koadrila honetako lagunak Getxoko Itxas-Argia taldeak urtero antolatzen duen paella eguna hartu zuten inspirazio gisa euren moztarroak egiteko. ^m

Zutunik: Xabier Saitua, Eleder Barañano. Alex Bengoetxea, Gaizka Atxalandabaso, Jon Ander Uriarte, Aitor Arrate, *Fertxu*, Joseba Mikel Laka, Aritz Goikoetxea, Natxo Fernandez de Agirre, Jabi Arondo, Iñaki Berroeta, Jose Mari Sainz, Urko Manzano.
Makurturik: Iñaki Ramos, Pedro Bergaretxe, Ibon Rodriguez.
Lurrean: Xabier Rementeria, Eneko Arzubiaga, Juan Garate.

LOLI ASTORIKA > aktorea

“Gizonen menpe emakumerik ez dagoela entzun gura nuke”

Testua: **Jon Urresti** / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.
Besteek esan beharko lukete hori. Hala ere, oso normala naiz.

Zein animalia gaz zatoz bat?
Txakur asko ditut, eta gustatzen zaizkit...

Zure jakirik gogokoena.
Txarripatak eta tripakiak kenduta, edozein. Oso jatun ona naiz.

Aitor dezakezun bizio bat.
Tabakoa. Ez dizut egunean zenbat erretzen dudana esango. Askok da.

Oporretara joateko lekuri aproposena.
Lagunakaz bada, edozein. Bidaiatzea izugarri gustatzen zait. Azkenengo bidaiak Jordaniaren egon nintzen.

Zein hutsegite ez duzu sekula barkatzen?
Segituan ahazten ditut horiek eta gainera azkar barkatzen dut. Hori bai... bigarrenaren ez didate egingo.

Zer janzten duzu lo egiteko?
Denetarik. Ikusgarria da: pijama, kamiseta, galtzetinak, berogailua... Forru polarra baino ez zait falta. Oso hozkila naiz.

Ezin zaitezke bizi... Osasun barik.

Zer gordetzen duzu sakeletan? Orain, musuzapiak. Katarroa kendu ezinik nabil.

Zein berri gustatuko litzaizuke albistegi batean entzutea?
Emakumeen aurkako tratua txarrak desagertu direla, ez dagoela gizonen menpeko emakumerik.

Sineskeriaren bat.
Ez dut sinesten baina badaezpada ez naiz sekula eskailerapetik pasatzen.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?
Atzo... pozez baina! Erraz egiten dut negar, eta barre ere bai. Gainera begiak garbizeko ona da.

Zure azken erokeria.
Oso egoera lasaia nago orain, ez nago erokeriak egiteko moduan. m

LABURREAN— Izarrei begira ez da egoten, sentimenduak berehala adierazten ditu ("*Irekita dagoen liburu baten modukoa naiz*"), eta buru belarri sartzen da esku artean dauzkan proiektuetan. Zornotzako Bernagoiti auzoan, "*Orain dela berrogeita piku urte*", jaio zen Loli Astorekak alai ere badela aitortu digu. Alai eta maitagarria. Hori guk geuk gehitu dugu, elkarriketan zehar zenbaitetan "*Bixotza*" bota zion-eta kazetari honi. Hamazazpi urte zeuzkala hasi zen aktore "Comicos de la Legua" antzerki taldean, "*eta gaur egun lanbide honen kontura bizitzen jarraitzen dut*". Antzerkia ez eze, telebista eta zinea ere bere talentuaren lekuko izan dira; izenburuak gogoratzea kostatu zaion arren, batzuk aipatu dizkigu: telebistan, *Hau da A.U.*, *Beni eta Marini* eta *Goenkale*; antzerkian, *Bilbao Bilbao*, *Euskadi Euskadi* eta *Pecata minuta*; eta zineman, *El coche de pedales* eta estreinatu barik dagoen *Aupa Etxebeste*. Loli Astorekak Bilbo maite du, eta Bilbok maitasun hori zelanbait itzuli egin dio: 1999an inauterietan *Zarambolas* izen-datu zuten, eta 2000n Aste Nagusiko pregoilaria izan zen.

2005. URTEAN KIROLA EUSKARAZ DATOR



IRAUPEN ESKI asteburuak

SOMPORTEKO ESKI ESTAZIOAN (JACA) Iraupen eskian ikasteko ikastaroak euskaraz Martxoaren 4tik 6ra



PREZIOAN:

- Autobusa
- Egondia Oroel Apartahotelean (Jacan)
- Bi gosari (larunbatekoa eta igandekoa)
- Larunbateko afaria
- Forfaitak
- 2 orduko ikastaroa euskaraz egunero
- Ekipo osoko alokairua
- Asegurua
 - Bazkideentzat: 100 €
 - Ez bazkideentzat: 125 €

IZENA EMATEKO EPEA:

Otsailaren 14tik 23ra bitartean Astelehenetik ostegunera arratsaldeko 17:00etatik - 20:00etara

Bizarra Lepoan Elkarteko egoitzan: Aldai Patronatuan (Itxasgane Etxea) Karitate kalea, 1, sotoa, 10.bulegoa. Telefonoz ere egin dezakezu 944 914 357 zenbakira deituta E-posta: bizarralepoan@euskalnet.net

ANTOLATZAILEAK:



BABESLEAK:

